



Iturria: *Marijaren illa, edo Maijatzeko illa*, Juan Antonio Uriarte. Delmas, 1850.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/U/UriarteIlla.htm>

MARIJAREN ILLA

edo

MAIJATZEKO ILLA

Jose Antonio Uriarte

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetza Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

SAN AGUSTINEN ERREGUA AMA BIRJINARI

Gomuta zaitte, o Marija Birjiña guztiz errukiorra ez dala iñoz entzun, zuk desanparauta itxi dozula bat-txu bere, zugana zuzendu, zugana eldu, ta zuri laguntasuna eskatu deustunik. Uste, ta itxaropen onegaz sendaturik, o Ama Dontzellen Dontzella, nator arin aringa zugana, eta makurturik neure pekatuen pisuaren azpijan, negar erijuan, etzuten naz zure oñetan. O Jaungoikuaren semiaren Ama, ez egijezu arren nire erregei ezentzunik egon, eta abegi onegaz aditu egizuz, eta emon egidazu eskatuten deustudana. Alan izan dedilla.

1. Pekatarijen bitartekua, erregutu egizu gugaitik.
2. O Marija pekatu bigarik sortua! erregutu egizu zugana gatozanok gaitik.
3. Parkatu egijozu, Jauna, parkatu zure errijari.



BIZI BEDI MARIJA

ARGIBIDIA

Marijaren seme, ta alba leijalak gomutau oi diran legez beragaz egunian iru bidar, au da. goixian, eguerdijan, eta illuntzian, eta daukeen legez auturik aste bakotxian egun bat, zein dan zapatua, igaroteko berarizko arduriagaz Ama samur onen gogoko egikizun, eta lanetan; alan dirudi ondo egiña, ta egokija berari eskintzia oso osorik urteko ill bat.

Eta eskintsarijetan emon biar dan legez onena, orregaitik autu, ta eskojidu da ill guztijen artian ederrena, au da, Maijatza, zeñek bere lora, ta giruagaz igitu, eta mobietan gautuzan egitera koroe bat ontasun, ta bertutetako lorakaz, eskintzeko zeruetako Erregiña andijari. Barriz, begitendu deitian errazago ta laburrago, eta izan deitian Marijaren gogokuago, egiten da onelan.

Imiñiko da Marijaren irudi bat albait onduen apainduta, dala lora, larrosa, edo beste era atako edergarriakaz, gela, eskaratz, edo etxeuak errosarijua errezetara batu oi diran lekuan. Aprillaren azkenengo egunian artuko dau bakotxak gero imiñiko diran gauza onetatik bat ill guztirako; ta areen ondorik imiñiko diranetatik beste bat, egun bakotxerako. Orra zelan egiten diran Markiñan.

Lelengo errezetan da bost amarrekogaz errosarijua letaña bagarik. onen lekuan kredo bat, eta salbe bat, Jesus, ta Marijaren bijotz gozuai. bisitetan dira altaraak Aita guria banagaz. irakurten da liburutik astiro egun etako gomuta geija: onen ondorik ejenplua: adierazoten dira bijaramonerako loria, ta sarri esateko erregu laburra: egoten da denpora puska baten ixilik gogoratuten irakurri diran gauzaak: gero egiten da berbaldija: kantetan dira letañaak, emoten da bedeinkazioia, ta amaituten da, azkenian imiñiko diran berba neurtu lauko, edo zortzikuakaz. Lagunik ez daukanak, bakarrik bardin egin leikez.

AMABI ARIMAKO LORA,

euretatik bat artuteko Aprillaren azkenengo egunian urrengo ill guztirako

1. Adiuntzaz, ta goixago oetik jagi, asi baga eguna nagitasun, ta alper usañagaz, jantzi, ta egin egunoroko erregu, errezu, ta eskarijak.

2. Entzun mezia egun guztijetan, baita bere errezauro errosarijua beinbere itxi baga.

3. Irakurri egun bakotxian ordu laurentxu baten liburu on bat, santuen bizitzetakua, San Ignaziorena, Eskuliburua, Kenpis, Egunoroko lan onak, edo besteren bat.

4. Ukatu egunoro bere buruari bere gogoko gauzaten bat, bera txarra izan ez arren: berbarako, zaleen dan jatekoren bat.

5. Izan errukiorra eskekuakaz, eta emon zertxubait bakotxak al daben giñuan.

6. Lanen bat aстера zuazanian, esaterako, jostia, atxurretia... jaso bijotza zeruruntz, eskiñi Marijaren eskuetatik Jaungoikuari, ta errezauro Ave Marija bat.

7. Etxetik urteeran, ta atzera biurreran egur egin Marijaren irudijari, Ave Marija bat errezauroagaz.

8. Egin prestatasunagaz, arin pozik, eta gogotik, guraso ta nagusijen esanak, ta aginduak, ez diranian oneek Jaungoikuak eragotzajak.

9. Ez iñor gaitik gaiski esan, ez da gauzarik txikijetan bere, nekezago esan daigun gero andijetan.

10. Egin aldabena bokotxak bere esate, eta egite onakaz, besteren bat onelako gauzetara erakarteko: berbarako, maijatze loretara, Jaungoikuaren berba santua entzutera, errosarijua errezetara, konfesetara, ta onelakuetara.

11. Itxi jan bagarik zaleen gaian gauzaren bat: ez jan, ez edan jiparttetan.

12. Ez egin ezaguera osuagaz pekatu arin edo txikirik.



EGUN BAKOTXERAKUAK

1. Burua makurtu, aitatu, entzun, edo irakurten danian Marijaren izena.
2. Esan eragin, edo beinik bein entzun meza bat, garbileku, edo Purgatorijuan aurkituten diran arimen artian Marijari etsigatasun, oneraspen, eta debozinoerik geijen euki eutsana gaitik.
3. Erlojuak joten dabenian, errezaue Ave Marija bat.
4. Goixian jantzieran, ta gabian soñekuak kentzen diranian, zuzendu Eleixaruntz, edo Marijaren irudi bateganuntz, agur egin, ta eskatu bere bedeinkazinoa.
5. Egin mesederen bat zeuri gorroto, edo eztasunen bat deutsula uste dozunari.
6. Gorde ardura andi bategaz zeure gorputzeko zentzun guztijak, eta batez bere begijak.
7. Errezau errosario bat, itxirik onetarako jolas, edo lagunakaz egon, ta ibiltiari.
8. Errezau iru bidar Aita guria; ta Ave Marija Purgatorijuan dagozan arimetatik Marijari deboziñorik geijen eutsana gaitik.
9. Entzun mezia begijak beri beera begira dituzula.
10. Marijaren amodijuagaitik ez jausi, oi garian utsegitetan, eta ondo ondo bete baktxaren lan, ta eginbiarrak.
11. Ez emon naibagerik dan txikijenik etxequai, auzokuai, ta lagunai, eta eruapenaz igaro eurak emoten deuskuezanak.
12. Arduraz egin errezuak, erreguak, irakurtaldija, ta beste erimako lanak.
13. Goixian eskiñi Marijari egun atako lanak, biarrak, gorputza, ta arimia.
14. Egin ordu laurenian adiñezko, edo gogozko erregua, edo oraziño mentala.
15. Egin mezan gurarizko konuninoia, edo espiritual, zeñetarako biar diran bost gauza. 1. Biztu fedia. 2. Adorau Jesus. 3. Pekatuen amodijozko damua artu. 4. Asmo sendo bat ez geijago pekatu rik egiteko. 5. Jauna artuteko gurari bizi bat euki.
16. Jantzi ederregiren bat badaukazu, saldu Marijaren borondaria egitia gaitik, eta artuten den dirua emon eskekuai.

17. Egudian sarritan euki pekatuen emodijozko damua, ta mun egin kurutzari.

18. Jagi goixian goix, leku emon bagarik nangitasunari.

19. Itxi gogoko, ta zale dan elgantzen bat, pekatuzkua ez izan arren.

20. Irakurri ordu lauren baten liburu on bat.

21. Aztertu, ta esamiñau konzienzija gabian oera jua baño lenago.

22. Ez jan, ta ez edan japatartetan premiña bagarik.

23. Ukatu bere borondatia iru bidar, ta opa eskintsari au Marijari.

24. Itxi eskeko batentzat berari jaokan janarijen puska bat.

25. Juan ikusi, ta gozatutera geixoren bat, presondegijan daguanen bar, edo beste naibagaren bat daukana.

26. Erregutu Marijari bijotzez, ta gogotik pekatu eralla, edo mortalian dagozanak gaitik.

27. Egin agirijan humiltasuneko egitadaren bat Marijaren izenian.

28. Artu laztasun, ta nekegarriren bat kongesoriagaz itunduta.

29. Kendu nagitasuna arimako gauzetarako.

30. Errezau zazpi bidar besuak zabalik Glorija Aitari, Marijaren zazpi oñaz, edo doloriak gaitik.

31. Parka eskatu Marijari beraganako daukazun oztazun, ta atzera-pena gaitik...

Onetariko baktotxa papertxu baten eskribidurik, sartuten dira guztijak pitxar, antoxin, edo ontzi baten: ateraten dira banan, ta artu baktotxak urteten deutsana. Au ez eginenian, artu leitekez elde errezman lelentotik amairano; baña batez bere norberentzat egokijago diranak.

Igitu, eta mobietako kristiñauen bijotzak deboziño onetar; Aita Santu Pio VII emonik daukaz egun baktotxerako iruren eguneko parkamen, edo indulgenzijaak, eta ill guztijaren barruban indulgenzija plenarija, edo oso bat konfexat ta komulgauta, erreguturik Jaungoikuari fede santua, gaitik, heregijeen anaija gaitik; Errege kristiñauen arteko bakia, ta batutasuna gaitik... eta berak gero argitu, ta esan eban legez, parkamen oneek irabazi leitekez garbileku, edo Purgatorijoko arimentzat. Onetareko egin leitez lora oneek nai alkartuta nai bakarrian.



LELENGO EGUNA

Maijatzeko lora oneek zergaitik egiten doguzan erakusten daben irakurte aldija.

Ay zein biarra, ta premiñazkua dozun kristiñaua, salbauko bazara, Marijaren laguntasuna! Ez dozu iñoz pekatu andirik egin? Baña zagoz egiteko arrisku andijan. Zenbat zu baño obaguak jausi dira, ta galdu betiko! Urten dozu pekatutik? Baña, nok daki iraungo badozu bizitza onian? Arako ekandu dongaak, arako pekatuako bidia, arako lagun gaistuak, zeuk dakizu ondo. Pekatuan zagoz? Ay zein biarra dozun Marijaren bitartekotasuna pekatuik urteteko! Erabagi dozu, ez bein bakarrik, ezpada sarritan; baña beti gelditu zara leenian. Marija gaitik eze, biar bada oraingo galdua ziñan.

Baña alanbere ill onetako eleizkizunen bitartez alkantzau ziñaike Marijareb laguntasuna, eta betiko zoriona. Marija lako Ama bigun batek, zelan ez ditu entzungo, bere seme egijazko izan gura dabenak egiten deutzazan eskarijak? errosariko bat errezeria gaitik, batu bat egitia gaitik, artu ditue beragandik pekataria andi askok, mesede tgari, ta berarizkuak. Zela-kuak itxaro ez daikezuz zuk, igaroten arimako lanetan?

Baña, ay zure errukarrija era eder au galduten badozu! Ay, asi, eta egun gitxi barru itxiten badeutsez! Nok daki auxe izango ete dan, Jaungoikuak beragana biurtuteko egiten deutzun azkenengo deija? Nok daki ill oneteko lan oneek egitian, edo ez egitian badago zure betiko zori ona, edo zori txarrak? Eta azkenik, nok daki ill au izango ete dan bizitako genengua, ta amaija? Orra zein neke gitxigaz irabazi ziñaikezan ainbeste arimako onera, ondasun, ta bitartekotasun ain altsua. Barriz egiten ezpadozuz, ze damua, ze kezkaak erijotzako orduan! Begira bada ondo, ta erabagi.

EJENPLUA

Zein kaltegarrija ete dan Marijaren errege ta errezuak itxitia, ta bera-ganako oneraspen, ta deboziñoian otzitu, edo epeldutia! Ondo argiro darakusu gertaera onek. Tomas Kenpis Beneragarrija izan da txiki txiktatik Marijaren serbitzari, ta deboto guztiz andija. Izentau zituzan errezu, ta beste gauza on batzuk egunoro beroni egiteko: baña eskolan ebillela, zori-

gaistuan, epeldu zan Marija ganako deboziñoian: geldika geldika juan zan gitxituaz bere egunoroko lan on ta errezuak: lelengo itxi zituzan batzuk, gero guztijak. Onelan bizi zala, euki eban beinbaten esatera noian begitaziño, ta ames bat, edo obeto esateko, zeruko ergitasun, ta dei bat, ta berak bere eintzakotzat artu eban. Begitandu jakon eguala eskolan bere lagunakaz, eta antxe agertu jakela zeruetako Erregina eder au, ezin esan leijan besteko anditasunagaz, bere arpegija argitasunez bererik, edurra bera baño jantzi zurijago bategaz. Ikusi eban zelan joian banan banan bere lagun Erligiosuak gana, zelan ziarduan berbetan eurakaz, zelako abegi ona egin, ta amodijua erakusten eutsen, eta batez bere, zelako esker-rak emoten eutsezan, artuten zituen nekiak gaitik, azaijera on bat emoteko, Jesusek bere odolagaz erositako gazte areei. Ikusirik bere lagunakaz igaroten zana, gura eukian Tomasek bera gana bere etorririk Marija, egingo baleutsa begirakune samur bat, ta esan amodijozko berba gozatsu batzuk. Ziñuan bere artian. Ez al naz ni mesede onen duin? Neuk bere beti maite izan dot Marija: bera barriz ain da Ama ona ze... Oneek ziran Tomasen uste, ta gogoraziñoiak: baña, ay zein erratuak! izan zituzan arpegi illuna, bekoki astuna, berba garratzak ta agiraka andijak. Eldu zan Marija Tomasegana, ta aserraturik guztija esan eutsazan berba oneek: Alperrik itxaroten dituk nigandik abegi samurra, ta berba bigunak, ik, eure nagitasun, ta lagun donga baten esanak gaitik itxi dituan orrek egin oi eustazan erreguak, ta lan onak. Nun dituk eure errezuak? Nun beste gauza onak? Ez az ija ija guztiz aztu nigaz? Eta oraindik itxaroten dok nigandik abegion, ta amodijua, eukirik nik ainbeste errazoe, igaz aserraturik egoteko, itxi ditualako, ain nire gogoko zituala enkijan eregu, ta lanak? Amaturik berba oneek iges egin eban zeruetako Erregiñak, eta larritasun baten. Iratzartu zan, azteru eban bere konzienzija, ezagutu eban egindako uts, ta faltia, artu zituzan onduetako asmo senduak, egun atan beratan asi zituzan barriro len egin oi zituzan errezu, ta lan onak, eta andik aurrera ez zituzan bein bere itxi, bizitza guztijan. Egunoro emon oi eutsazan eskerrak bere Ama Zerukuari, atera ebalako bere itxutasunetik, ta artu barriro bere serbitzaritzat. Neurri guztijak artu zituzan onduteko: errezetan eban guztiz sarri Ave Marija, berak iraaften eutsazan berba guztiz eder batzukaz. Begira bada zelan jarraituten deutseezun gaur asi dituzun lan oneei, ta beste, lendik daukazuz errezu ta lan onai.



BIJARKO LORIA

Eruan egizu bularrian Marijaren irudi bat, eta estuturik samurtasunagaz esan sarri: Izan bedi zuria, o ene Ama, nire bijotz guztija.

Sarritan esateko erregu laburra.

Dignare me, laudare te, virgo sacrata.

Ama Donzella santia, egin nagizu zu alabetako duin.

BIGARREN EGUNA

Betiko salbezziñoiaren ganian.

Zetarako nago ni munduan? Salbetako. Adituten dozu au neure arimiamia? Ez zagoz munduan olgetako, jateko, jantziteko, atsedetako, eta askogaz gitxiago pekatu egiteko: zagoz munduan bakar bakarrik salbetako. Zer balijoko leuskizu eukitiak zeure mende, ta agindupian mundu guztija, azkenik galduko baziña? Erregiak, agintarijak, jakitunak, zer balijo deutsue orain zeuen eskubida, indar, ta jakiturijak, ez badozue jakin salbetan zeuen arimia?

Salbauko ete naz ni? Ez dakit: ezelan-bere ez dakit. Arimako salbaziñoia ez da erosten urriagaz, irabazten da norberaren griña, ta gurari bidebagakuai jarkijagaz; galduten da gogoraziño utseko pekatu mortal bakar bategaz. Salbetako ez da asko noosbait ona izatia, iraun biar da bizitza guztija izan da pekatu egitia, eta urten orduko atzera biurtutia; oraingua, da leza illun. neuk bere ez dazaudan bat: gerokua barriz, zelakua izango ete da? Jaungoikuak bakarrik daki.

Azkenik, bein galduten banaz, betiko galdua izango naz. Galdu arren auzi bat, galdu arren osasuna, zerbait itxaron daiket; baña galduten badot bein bakarrik arimia, juan zan betirau guztirako. Esku nat ebagiten badeustee, beste bat geldituten jat; oin bat ebagiten badeustee, beste bat geldituten jat; begi bat ateraten badeustee, beste bat geldituten jat. Baña, zenbat arima daukadaz? Bat bakarrik, eta alan berau bakarrik izango da, edo beti zeruan, edo beti infernua. Eta ain ardura gitxi emoten deust salbaziñoiak, edo argiruago esateko, uste dot ain ziur daukadala? Bizi naz kezkiaren apurrik baga, eta oraintxe illgo banintz, ez dakit salbauko ete nintzatekian!

EJENPLUA

Venecijan bizi zan Letrau jakitun bat, bide txarretik egin zituzan irabazijakaz aberastuta, eta augaitik Jaungoikuaren aserre ta gorrotuan. Ez eukan biar bada beste gauza onik, ezpada Marijari egunoro erregu bat egitia: eta deboziño labur onexegaitik librau eban Marijaren ontasun ta errukijak betiko erijotzatik. Begira zelan. Adiskidetu zan gizon jakitun au fray



Mateo Baso eritxon kaputxinu bategaz, eta egun baten alako erreguak egin eutsazan juateko bazkaritara bere etxera eze, azkenik jua zan. Eldu ziranian etxera esan eutsan jakitunak: Aita, erakutsi biar deusats iñoz ikusi izango ez daben gauza bat. Nik daukat tximiño miragarri bat, otsein batek legez serbietan nabena: garbituten ditu ontzizak, iminten dau maija: idigiten deust atia... Erantzun eutsan Aita erlijiosuak: gero tximiñua baño beste gauzaren batek izan biar leuke onek... ekarri dagijela ona. Deituten deutse; bigarren ez ta irugarrene bere bai, billatuten dabe alde guztijetatik, baña ez zan iñun tximiñorik agiri. Azkenik aurkituten dabe oe baten azpian ezkutautu, etxeko bazter baten: bala ezelan-bere ezin atera izan eben andik. Orduan esan eban Erlijiosuak, guazan geu bera daguan lekura: jua zan Letrau jakitunagaz batera, ta esan eutsan: infernuko pistija madarikatua: Jaungoikuaren aginduz ta orde berba egiten nor azan, ta zetarako agoan etxe onetan. Ta orra nun erantzuten daben tximiñuak, dala demonioa, eta daguala zain ta itxaroten pekatari arek Marijari egunoro egiten eutsan erregua egun baten itxi artian, orduantxe eruateko infernura; bada Jaungoikuak emonik eutsala eskubidia beriala ito, ta bizitzia kenduteko. Au entzunik, entzun zan beriala Letraua negarrez Jaungoikuaren serbitzari aren oñetan, laguntasunaren eske: sendatu eban egijala laster etxe atatik iñori ta ezeri kalterik egin бага: bakarrik emoten deuat eskubidia, esan eutsan, urratuteko orrako orma ori, ezagutu jajaguan urte duala. Berba onek amaitu orduko, ots ikaragarri bategaz zulatu zan ormia, eta ezin iñoz zarratu izan ebeen kare ta arri guztijakaz bere, Jaungoikuak alan nairik. Azkenik imiñi eben zulo atan Aingeruaren irudi bat. Letarua ondu zan, ta uste uzan lei iraungo ebalu bizitza onian. Orra zenbat balijo daben Ama oni errezeziak.

BIJARKO LORIA

Bijar jua ziñaitেকেz Marijaren irudi baten aurrera, eta erregutu bijotzetik alkantzau daizula betiko salbaziñoia.

Sarri esateko erregu laburra.

Salva me. Domina salva me.

Salbau nagizu Andria, salbau nagizu.

IRUGARREN EGUNA

Gure arimiaren duintasun eta anditasunaren gañeko gomutia.

Begira eta aitu ondo, neure arimia, zein andi, duiñ , eta balijotsua zarian zeure jatorri garbi eta goratuaren aldetik. Noren eskuetatik urten dozu? Jaungoikuaren eskuetatik. Zeñen irudira izan zara egiña? Jaungoikuaren irudi eta antzera. Ez da au larregi esatia, eta ain gitxi izkuntza eta berbaeraren bat, ezpada egija guztiz ziurra. *Deus creavit de terra hominen; et secundum imaginem suam fecit illum.* (Eccl. 17. 1.) Eta zu ez bakarrik ez zara gogoratuten zeure jatorri goratuagaz, ezpada galduten dozu pekatua gaitik irudi eder au, Demonio batena artuteko!

Baita bere gogoratu egizu zenbat balijo dozun, ikusirik zertzuk egin ziran zu pekatutik aterateko. O neure arimia! Zu zengozan galdurik, eta betiko galdurik, Zein da atera zinduzana Luziferren mendetik? Zeure aita zerukua. Eta zer da onek emon ebana onetarako? Urria, zidarra, arri baliosuak? Ah! Geijago, askosaz geijago, amaibaga geijago. Zu pekatutik ateratia gaitik emon eban bere seme bakar ta laztanaren odola ta bizitza. Eta, bizitza ain baliosu bat, ainbeste kostetan dan bizitza bat alperrik galduten dozu, gurari zital, iraitzeko, ta utsa balijo daben bat gaitik?

Begira azkenik, neure arimia, zenbat balijo dozun, geroko eskiñirik jaotsun zorijontasuna gaitik. Zu zara zeruko Errege andijaren alaba bat, aututa zagozana bere jartokijaren aginduteko. Orain bada, Erregeren alba, egunen baten koroe ederragaz apaindua izango danaren azijeriari, zelako arduariagaz begiratuten ez jako, bere Aitaren Errege uri, ta jauregijan? Eta zu, neure erimia, zeruko jaubegeija, nun zagoz? Nun bizi zara? Oh neure Jaungoikua! Pekatuaren lokatsa, eta zingira atsituaeren erdijan, abere loi baten gisan. Eta, ez zara lotsatuten? Ez daukazu bildurrik, jaikñik Jaungoikuak kendu daikezula zerureko daukazun eskubide ta jaubegeitasuna?

EJENPLUA

Ezagaturik ondo Marija Ama grazijazko onek Kristinauaren duintasuna ta arimiaren balijo andija, al daben guztija egiten dau, batxu bere galldu ez dakijon. Entzun. San Franzisko Salesek emon zituzan bere bizi-tza guztijan Marijaren deboziño egijazkuaren ezaugarri argijak, baita bete



artu zituzan beragandik mesede ugarijak. Esango deusuet emen, bere bizitzako jazoera bat, argiro sarakutsana, batetik Santu onak Marijagan eukan uste ta itxaropena, ta bestetik Marijak daukan arduria galdu ez dakijon bere sebitzaririk. Egun Parisen estudijetan, ta orsutixek zan guztiz on ta garbija. Baña orra nun Jaungoikuak alan gurarik esesten deusan desesperaziñoeko tentaziño sendo ta gogor batek. Ezin ezenlanbere kendu eban burutik, betiko galdurik eguala, eta ez ebalaz inoiz ikusiko Jaungoikuaren arpegija. Dakijanak ezagutu leike, zelako ultze ta penia izango zan au, ain amodijo andija Jaungoikuari eutsan arima batentzat, eta bera ikusteko ain gurari bizijak eukazanentzat. Esetsi gogor onak, ez eutsan itxiten arterik artuten ez egunaz, ez gabaz, ta beronen indarrak imiñi eban kolorgaldurik, zurbildurik, argaldurik ta erkindurik, ilteko zori ta ariskuan. Estutasun larri onetan beri zuzenduten zen Aita zerukuangan, zein dan atsegin guztijaren Jaungoikua. Beinbaten ain bizi ta gogor artu eban esetsi edo tentaziñoiak eze, zer egin, ez nola jua ez ekial, satu zan elexa baten, nun lenago egin eban garbitasuneko eskintsari edo botua. Lelengo begijen aurrian jarri jakona zan Marijaren irudi bat: berial gitxitu zan esetsija: sendatu zan geijago Marijagan eukan itxaropenian: jarri zan auzpaz lurrian eta ez zan ezker duin Jaungoikuari begiratuteko, eskatu eutsan arima arimatik Marijari, baldin infernurako aututa beguan, an Jaungoikuari gorrotoz begiratu, ta birauak ezarteko, arren alkantzau egijola grazija, edola-bere mundu onetan bizi zan artian maitetu ta alabetako. Obeto entzuna izateko egin eutsan arako San Bernardoren erregu jakin ta entzuna. Gomuta zaitte, o Marija Birjina gozua, ez dala inoiz entzun, zugana zuzendau danik, zuri laguntasuna eskatu deusunik, geratu dala, zugandik biar dabena artu bagarik. Itxaropen onegaz sendaturimk nator zugana, ez zaitetz arren gortu nire erregu ta eskarijetara, ezpada entzun nagizu ta lagundu egidazu." Erregu au egiten ziarduanian, negarrezko iturri bi erijozan bere begojetetik. Errukijaren Amak ezin itxi eukezan entzun baga eskari oneek. Bere laguntasun ta indarragaz goitu eban esetsija: baketu zan bere arimia: sendatu bere itxaropena gozotasunez bete bere bijotza: baita bere alde alde batera osatu zan, biurtu lengo indarrak, ta geratu zan ezer igaro ez baleu legez. Ordutik aurrera euki eban beti bijotzeko bakia, bake egijazkua, ezek galdu eragin ezin eutsana: eta ikusirik berberagan Marijaren bitartekotasunaren altsutasuna, geitu jakon oraindak geijago beraganako amodijo ta itxaropena.

BIJARKO LORIA

Azteru agizu zeure konzienzia, eta ikusten badozu pekatu mortalian zagozala, konfesau zaitte bertatik, eta bestelan, damutu bijotzetik lenguakaz.

Sarri esateko erregu laburra.

Salve vinela reis, profer lumen caecis.

Askatu egijezuz lokarrijak pekatuakaz loturik dagozanai: argitu rgi-zuz gaiztakerijan itxututa bizi diranak.



LAUGARREN EGUNA

Gorputzaren salbazinoiaren ganian.

Zergaitik pekatu egiten dozu? Zeure erigijaren gurarijak betetia gitik. Errua! Ez dazauzu berari gatz, eta kalterik andijena egiten deutzazula? Arimia kondenetan, bada, salbauko ak da gorputza? Ez. Edo bijak zorijonekuak, edo bijak zorigaiztokuak. Estu eta artega zaukaz buruko mun batek, oe gogorrek, janari urriak, eta erara ez jatortzun egoera batek: eta infernuan barriz, infernuan zer izango da?

Zelako gurari ta garra daukazun orain ikusteko zeure burua eskubide ta agintaritza andijakaz! Illgo zara, ta zure gorputza geratuko da azurruts biurturik; zure burua ule ta narru bagarik, begi bagarik, ezpan bagarik, miin bagarik, esku ta oñak aragi bagarik; eta enparaua usteltasun eta arrez beterik. Baña onezaz ganera, kondenetan bazara, zure arpegija egongo da ikatza baño balzago, zure miñak argi egingo dau bibora batek legez, zure begi jak baten, geratuko zara demonio bat eginik. Ay au ikuskizun bildurgarrija!

Zeure aragijak pekatu eragin gura deutzunian, esan biar deutzazu: Ah aragi uzu, ezibagia! ire gurari zitalai obe egiten bejeutseet, erretan egon biarko juagu bijak betiko garretan. Eta, emongo deudaz atsegin labur batzuk, gero ainbeste pena bijak igaroteko? Ez orrelakorik: Neure arimia: maitetu gura badozu gorputza, maitetu egizu ordu onian; baña opa egijozu onera egijazko bat, edertasun egijazko bat; onera bat, eta edertasun bat, betiko zorijontasunian.

EJENPLUA

Marijak libretan ditu bere serbitzarijak, ez bakarrik arimako gatzetatik baita gorputzekuetatik bere. Sarritan ikusi dabee kristinauak ziurtaurik egija au, baña batez bere zortzigarren gizaldijaren asieran. Moro ta Sarrazenuak arroturik Egipto eta Numidijako irabazi ta garaitzakaz, sartu ziran Españako Erreiñu onetan bertako gizon donga bategaz aditu ta alkarturik. Zabalduten dira bazter guztijetatik, batez bere Andaluzija ta Estremaduratik, eta eurakaz batera darue sua, garra erretia, lapurretia, Eleixako ontzirañokuak ostutia, negarra, garrasija, ulua, osola, erijotzia, triskan-

tzia ta ondamedija. Ah! España España! Nogaz bardinduko zaitu? Dirugosiak geituten, dau Sarrazenuen gaiztakerija ta gogortasuna. Dabiltz inguruetan itxasoz jira ta bira. Usterik gitxijen dabeenian sartuten dira erri, uri, ta probinzijetan, osturik eldabena, atrapetau ditue gizon ta emakume aldraak: aita geratuten da seme baga, semiak aita baga, senar emaztiak bizialargun eginik, aberatza ezar bagarik, ez deutse parkatuten Eleisgizonai bere, an daruez Afrikara. Nok adierazo ango presondegijetan igaroten dituezan penaak, gorputzeko ta erimako bizitzia galduteko arriskurik andijenian? Baña katigu errukarriak: ixildu bitez zuen negarrak: poztu zaiteze: eldu dira zuen eskarijen diadarrak Marijaren belarrijetara. Berbera jatziten da zerutik lurrera zuek askatuteko neurriak artutera; eta, o zelako anditasun arrigarriagaz! Aingeru batek emon eutsazan Moisesi amar aginduak; Aingeru batek adierazo eban Jesusen beraren etorreria zerutik luurrera: baña katiguak askatutera, onetarako Merzedeko Erlijioia Elexa Santaan imintera, dator gizon ta Aingeruen Erregiña bera. Edegiten dira zeruak, jasten da argitasunez beterik: agertuten jako Pedro Nolaskori, ta adierazoten deutsa, zein bere gogoko izango dan, imintia Eleixa Santan Erlijio bat katiguak askatutia bere lanik nagusikena izango dabena. Berak erakusten deutse zelako soñekua jantziko dabeen: berbera jarten da euren buru, gordetzalla, ta gijari egiñik, eta artu eragiten deutsee Merzedeko izen samurra. Nolasko ta bere semiak batuten ditue diruak, duaz Afrikako presondegijetara, askatuten ditue katiguak, diruak amaitzen jakeezanean, eurak geratuten dira katigu, ta bialduten ditue Españara kristinau aldraak, gorputzeko ta arimako bizitzia galduteko arriskurik andijenian egozanak. Nori zor jako mesede au? A! jakiña da: Marijari: bai, zuria da Marija, zuria da Afrikako presondegi illunetako Egiptotik atera dozun erri au. Orra zelan dakijan lagunduten Marijak, ez bakarrik arimako premiñetan, baita gorputzekuetan bere. Zuzendu gaitian bada guztijetan beragan uste bete ta itxaropen osuagaz.

BIJARKO LORIA

Emon daikijozu zeure gorputzari laztasun ta nekegarriren bat, len emon deutzazuan pekatuzko atsegiñen orde.

Sarri esateko erregu laburra.

Munda cor et corpus meum Sancta Maria.

Santa Marija, garbitu egizuz nire gorputza ta bijotza.



BOSTGARREN EGUNA

Denporiaren gomutia.

Badua denporia, eta denporiagaz banua neu bere. Nire bizitzako amabost, ogei, ogeta amar, berrogei urte igaro dira onezkero, eta ez dira geijago atzera bihurtuko. Eta zenbat enparetan eta jataz Ez dakit; baña badakit gitxi dirana. Laburra da denporia: neuk neuronek esan oi dot, igarri bagarik egaan egiten dabeela egunak. Baña betiraun edo eternidadiagaz neurtu ezkeru denporia, ez bakarrik da guztiz laburra, baita bere berbarako, utsa.

Denpora laburra eta denpora balijo andikua, zerren denpora ain labur onetan irabazi daiket zorijontasun amibagako bat. Ondo igaroten dodan une edo instante bakotzak, geitu leiket zeruan gloriako zapalda, gradu eta malla bat. Ordu erdi ondo emoniko batek, neure arimia garbituten, atera daike demonioaren mende ta erpeetatik, eta imiñi Jaungoikuaren esku bedeinkatuetan. Egunoro izentauaz denpora puskabat errezetako, Jaungoikuagaz berba egiteko, mezia entzuteko, liburu on bat irakurteko, urrindu neike pekatutik eite jaritxi salbaziñoia.

Denpora laburra, eta sempora bildurgarrija. Edozein une edo instantetan pekatu egin neike, ill neiteko, ta kondenu neiteke. Ah nire zoriztokua! Bada denpora ain laburrian eldu neitekian santu izatera, eta oraindik naz pekattarija. Galdu dot denporia zorakerijetan, eta pekatuetan. Ze onera ta mesede atera dor orain artian, onela alperrik denporia galduagaz? Ardura andi bategaz begiratuten ez badot aurrerantzian denpora obeto igaroteko, elduko da eguna zañetan eskatuko deusadan Jaungoikuari ordu bakar bat onduteko, eta ordu au ez jat inoz elduko betiraun guztijjan.

EJENPLUA

Ze onera ta mesede andijak dakazan, igarotiak egunoro denpora puska bat baño ezpada bere, Marijaren errezueta! Beiñ baten mutil gazte bi juan ziran eskolarik ez eukeen egun baten, Po deritxon ibai batera, ta sartu ziran batel baten. Esan eutsan batak bestiari: zereginik ez daukagun ezkeru, naikua olgaugara, eta egin daiguzan sartuta gagozan Marijaren

batzar ta kofradijako errezuak. Erantzun eutsan bestiak, orrek ez egitia ez da pekatu, eskolarik ez daukagun ezkeru olgau nai dot geijago: ez daukat errezetako gogorik: baña alanbere bestia bakarrik jarri zan errezetan. Onetan ziarduela, urten eban aixe andi batek, esetsi eutsan euri zaparrada guztiz ugari bati, ta beriala azi zan ibaija: eurak ez egijen legez zuzenduten batela, ezin jarki jakozan ur korrontiari, ez urten liorrera. Alako baten girau zan bateka, ta jausi ziran uretara. Ito aginian ebiltzela deitu eutsan bijak Marijari, eta bertatik agertu jaken Ama errukizko au: eldu eutsan eskutik errezuak egin zituzanari, ta atera eban lurrera. Uste eban bigarrenak, beragaz bere, beste ainbeste egongo ebala; baña zuzendurik beragana, arpegi aserriagaz esan eutsan: Ik ez dok nire errezurik egin gura izan, ta nik bere ez iri lagundu. Guztija ikusi ta entzuten eban bere lagunak, ta emon eutsazan eskerrak Marijari, errezu labur batzuk gaitik mesede ain andija egin eutsalako. Begira bada Marijaren Kofradijan sartuta zagozana: nagitasunez egunoroko errezuak egin baga itxitiagaz.

BIJARKO LORIA

Errezau Marijari zazpi Abe Marija ta salbe bat.

Sarri esateko errege laburra.

Vitam presta puram, iter para tutum.

Emon egidazu bizitza garbija, prestau bide zuzena, ta ziurra.



SEIGARREN EGUNA

Pekatuaren gañeko gomutia.

Aztertu eta begiratu egizu, jausi eta zarian inoiz pekatu illgilla, eralla edo mortalen baten. Baldin zorigaiztuan jausi bazara, badakizu zer egin dozun? Al dozun guztija, zeure Jaun eta Jaungoikua, zeure Egillia, zeure Salbagillia, Aita ta ongillia ill eta ezereztuteko: erantzun esker txarragaz bere mesediai, esan bere begijen aurrian lotsabakerijarik andijenegaz ez dozula bere esanik egin gura; jarki berari; galdu grazija, ukatu Aitatzat; galdu zeure egitada onakaz irabazi zenduan guztija, galdu glorijako zori-jontasuna geratu zerutik erbesteturik, eta infernura jausirik. Asmau leiteke zorigaiztotasun andijagorik.

Eta, oraïndik bazagoz pekatu mortalian ay zure errukarrija! Jaungoikua da zure arerijua, eta zu zara Demonioaren serbitzari ta menpekua. Zelan azartuten zara barre egiten, jokauten, olgetan, edo lo egiten ezeren bildur baga? Ez dakutzu, aspertuten bada Jaungoikua zuri itxarotiaz, ill ziñaitkezala, eta kondenu begijak itxi edegi baten? Millakada Aingeruak jausi ziran infernura pekatu bakar bat gaitik: eta zu zagoz bildur baga eginik ainbeste pekatu? O itxutasun negargarrija!

Baña orain pekatuan aurkituten ez bazara bere, beti gagoz guztijok jausteko arriskuan. Esetsi edo tentazione gogor batek, edo beste uste bagako arrisku batek, beera bota gaikez gitxijen uste dogunian. Aingeruak pekatu egin eban zeruan, Adanek atsegiñezko ortuan, eta Judasek eta Pedrok Jesrukristoren eskolan. Beraz zu bere izan arran Aingeru bat, kristiñau on bat, geratu ziñaitkez une baterik bestera Demonio bat eginik. Ikaratu zaitte, bada arrisku ain andijaren gomutiagaz.

EJENPLUA

Gura badozu pekatuan ez jausi, ta goitu esetsi donga ta arimako are-rijuak, euki egjozu Marijari deboziño andi bat. Entzun zelan gorde eban pekatutik Ama onek Mezina deritxon erri baten, mutil gazte bat. Eguan au sartuta Marijaren kofradijan, bizi zan garbitasun andi bategaz, ta zan zeruetako Erregiña onen serbitzari egijazkua. Demonioak burutan imiñi eutsan emakume donga bati, gazte oni pekatuan jausi eragitia, eta bijak

bakarrik egon ziran baten, egin zituzan inos baño alegin andijaguak beria-gaz urteteko. Estutasun larri onetan jaso eban mutil gazte onek bere bijotza garbitasunaren Ama gana, eta deitu eutsan berba labur, baño samur oneekaz: *Neure Ama lagun zakedaz arren, ta ez nakizu itxi egoera arriskuz beteriko onetan.* Beriala izan zan entzuna, ta artu eban zeruko laguntasuna. Une atan beratan artu eban emakume donga arek itxura bildurgarri bat, allagiña ze, begitandu jakon pistija ikaragarri bat, edo infernutik urteniko demonio baltz bat, arpegi guztiz itxusi ta ezaña, eta buruko uleen lekuan suge aldra andi bat ebal. ain modutan ze, begiratu bere ezin euzkijon. Bertatik iges eban esetsi edo tentazioiak: eta egin eutsazan emakunme galduari egiraka garratzak, bere lotsabakerija, nekez entzun bere egiten dana gaitik. Onelan, Marijaren laguntasunagaz irabazi eban garaitz andi bat, esetsi txikijaguagaz bere gazte asko goiturik, geratuten diran lekuan. Orregaitik bada, demonioak, nai munduak, nai aragijak pekatuan jausi eragin gura deutsunian, zuzendu Marijagana, ta eskatu bijotzetik berari laguntasuna.

BIJARKO LORIA

Arimako arerijua pokaturako zirijatuten zaituzanian, mun eikiozu errosarijuaren garauai, edo Marijaren irudi bati: zergatik eze, ez da erraz pekatuan jaustia, Marijaren irudi edo errosarijo Santuari gogotik mun egiten jakon une atan beratan.

Sarri esateko errege laburra.

A peccato mortali libera me, Domina.

Andria: gorde ta zaindu nagizu jausi ez naitian pekatu mortalian.

EJENPLUA



ZAZPIGARREN EGUNA

Pekatuari jaokazan ta darraikezan penen gañian.

Gizon batek gura izan arren bengau gatz egin deusnagaz, sarritan ezin bengau jako: baña Jaungoikuagan ez da alan: gura badau kastigau daike pekatarija, eta bengau arerijuai. Kendu leikeguz osasuna, ondasunak, eskubidiak, geure gurasuak, edo bizitzia bera. Gura badau, egin daike une edo instante bakar baten. Kastigau leike pekatu mortalian daguana, uste baga, bat batian bizitza kenduagaz. Egin gura badau, nok eragotzi daikijo? Eta zuk, errukarri orrek, badakizu zein dan onetan Jaunaren gogo ta borondatia? Ez; bada, ez baldin badakizu zelan azartuten zara pekatu egiten, eta bildur baga pekatuan lo egiten?

Orain bada jakin egizu Jaungoikuak kastigau gura dabela pekatua. Pekatu egin badozu, euki egizu ziur ziurtzat Jaungoikua bengauko jatzula, eta kastigauko zaituzala, mundu onetan edo bestian. Edo penitenzia edo infernua. Adanek eteEvak alkantzau ebeen parkaziñoia, eta salbau ziran; baña eureen pekatuari jaokan zorrak dirau oraindik. Zuk diñozu: pekatu bat geijago edo gitxiaguan ez dau gauza andirik. Erua! Ez al dua gauza andirik kastigu bat geijago edo gitxiaguan?

Mundu onetan bertan bere kastigau oi dau Jaungoikuak pekatua. Izurrijak, gatzak, etxe edo senitartekoak naibagiak, kendu deustubeen egizun ta ogibidia ikustia galdurik zeunkazan itxaropenak, zeure izen-on ta kleitua galtzeko eregi ta asmau deustuen guzurra, iños-bere bakian itxiten ez deustuen esetsi edo tentaziñoie gogaikarri orreek, zertzuk dira pekatuaren akulu ta kastiguak baño, zuk itxu orrek ezagutu ez arren? Eta baldin betetan badituzu zeure gurari okerrak, eta guztija erara ta eskura bajatortzu, au da oraindik kastigu andijago ta bildurgarrijago bat; zerren onelan errazago iraugo dozu pekatuan, geiteko dituzu pekatuak, eta egin egurrezko sendor ta meta andi bat, zeu erretako infernua. Ala eldu zara ez eukiteraño zeure ariman kezkarik? Ez bildur izatera Jaungoikuaren ase-riagaz? Ay zure errukarrija! Bada zeure buruaren ganian dozu Jaungoikuaren aserriaren gogortasun guztija. Baldin iñor badago munduan Marijaren bitartekotasunaren premiñan, zu zara beintzat.

Baldin Jaungoikuak orain artian kastigau ez bazaitu, izan arren pekatari ain andija, sinistu daikezu au izan dala Marijak zure alde Jaungoikuaren aurrian egin dituzan erreguak gaitik. Bada, ay zure errukarrija baldin oraintxe bertatik artuten ez badituzu onduteko gogo ta asmo senduak! Entzun jazoera au. Bizi zan Toledoko probintzian zaldun gazte aberats ta odol garbiko bat pekatu eta gastakerijetako lokatsa ta zingira atsitan ondaturik, baña alanbere egiten eutsazan Marijari errezu batzuk. Aspertu ta aserraturik Jaungoikua ainbeste pekatugaz, ez eutsan geijago itxaron gura, ezpada kastigau beriak: eta Jaunaren serbitzari leijal batek zeruko argitasunagaz ezagutu eban, zelan usterik gitxiheen ebanian geratu biar eban pekatuan illik, ta betiko galdurik. Baita bere ikusi eban zelan beragatik erregututen eban Marijak, eta erantzun eutsan bere seme Jesusek: *Ara bada, Ama, zure eskarrijak gaitik emoten deusadaz beste ogeta amar egun ondu dedin: baña igaroten bada epe ta plaza au pekatuak itxi ta nigana bijotzetik biurtu bagarik, alperrik izango dira erreguak, orduantxe bertan kenduko jako bizitzia.* (Auriem T. 2 p. 14). Jaungoikuaren serbitzari onek agertu eutsan Eleisgizon Sazerdote bati, euki eban zeruko argitasuna, adierazo egijon zaldunari: alan egin eban beriala, ta bere berba onakaz erakarri eban konfesetara, ta onduteko goguak artutera; baña alperrik, zerren bertatik biurtu zan lenagoko pekatuetara. Egija da bigarrenez bere konfesau zala, ta artu zituala onduteko asmuak; baña ez eban egin onelakorik, ezpada, sartu zan leen baño bere barrurago pekatuan. Orduetik iges egiten eban konfesoriantik, eta beinbaten uste baga aurkitu ebanian aurrez aur kalia, aserraturik guztija ta azaijera txarreko baten gisan, esan eutsan: *Alde begi Jauna nigandik: bijua berorren lanetara, bada ez dauka nigaz zer ikusi ta zer egitiik.* Eldu zan azkenik ogeta amargarren egunaren gaba: baña zaldun au bizi zan iñoz baño aukera geijagogaz bere gaiztakerijetan, zeruko zemaijai jaramonik egin bagarik. Gaberdi inguruan bat batera artu ebeen min, ala, ta oñaz edo dolore portiz eta ikaragarri batzuk. Bere diadar ta uluetara irartzartu ziran etxeko ta auzunetakuak bere; jua ziran beragana: duaz arin aringa ta lau oñian konfesore billa: elduten da au: egiten ditu alegiñak guztijak itxaron eragiteko Marijaren bitartekotasunian, baña alperrik. Azkenik zaldun zorigaiztoko onek, egin eban diadar ikaragarri bat, zinuala. *Ay nire errukarrija! bada igaro deustee neure bijotza alde batetik bestera:* eta eurok esanagaz batera, geratu zan illik. Begira aspaldijetan pekatuan bizi zariana, kon-



fesau ta bertatik pekatura biurtuten zariala, zeruko argitasun ta deijai jaramonik egin baga: begira, diñot, beste onenbeste jazo ez dakizun.

BIJARKO LORIA

Egon zaite ordu laurenian Marijaren irudi baten aurrian, eskatuten deutzazula, bigundu daijala bere errekuakaz Jaungoikuak zugaz daukan aserria.

Sarri esateko erreku laburra.

Mater dei ora pro me.

Jaungoikuaren ama, erregetu egizu ni gaitik.

ZORTZIGARREN EGUNA

Erijotziaren gañeko gomutia.

Illgo gara: itxiko ditugu betiko gurasuak, sendiak, adiskidiak, olgantzaak, munduan daukagun guztija, baita bizitzia bere. Nire bizilekua izango da arrez bereriko obi edo sepultura illun ta atsitu bat: nire etxia izango da betikua: baña: zelakua? zorijonekua, ala zorigaiztokua? Ez dakit. Au da egija bat fedieren biarrik inok ez daukana sinistuteko; bada dakuzgu geure begijakaz egunoro ziurtaurik. Ilten dira zarrak eta gaztiak, aberatsak, eta nekazarijak, pobre ezeuki, agintari ta mendekuak, onak eta gaiztuak. Ill zan Marija, ill zan Jesukristo, neu bere illgo naz.

Baña Nun? Zelan? Etxian? Eleixan naguala? Oian natzala? Bidian nabillela? Ez dakit. Geixo luze bat igarota? Bat batian? Zabun bategaz erreten batera, edo zubi batetik beera jausita? Oñaztarri bategaz? Ez dakit. Eta nois izango da? Emendik ogeta amar urte barru? Aurten? Ill onetan? Gaurko arratsian? Ez dakit, ezertxu bere ez dakit, Jaungoikuak bakarrik daki, zeñek esan daben, erijotzia etorriko dala gau-lapurra legez gitxijen uste danian.

Eta, ni bizi naz inoz illgo ez banintz legez, eta erijotziagaz gomutau bere bagarik? Oraintxe illgo banintz (neure bijotzak eta barruak diraustenez), norako eta nintzateke? Urr urrian infernurako. Au dazaut, eta gomuta onek ikara eragiten deust. Zelan bada ez ditut berala neurrijak artuten, arrisku ikaragarri onetatik alde egiteko? Luzatuten dot ill batetik bestera; egun batetik bestera; barriz beti nua urreratuaz erijotzara, eta beti ondaturik pekatuan. Ay nire zorigaiztokua! Pekatuan illten banaz, nori ezarriko deustat errua?

EJENPLUA

Ze erijotza dontsu ta zorijonekua izan eban amar urteko mutiltxu batek, txiki txikitatik euki eutsalako Marijari deboziño andi bat! (Auriem t. 2 p. 135) Bere zorijonian aurkitu eban irakasla edo Maesu bat, bere ikaslaai sarri esaten eutseezana Jaungoikuaren ta Marijaren gauzaak. Bein baten entzunik Maisubari, zein gauza biar ta premiñazkua zan erijotza on bat egiteko Marijaren deboto egijazkua izatia, era bagi eban sarritan esa-



tia Marijari berba oneek: *Jaungoikuak gorde zaiçzala Erregiña, eta errukijaren Ama*. Oetik jagieran, etzieran, eskolara bidian, olgetan ziarduanian, leku ta denpora guztijetan esaten eban bijotzetik erregu labur au. Ondo laster izan eban sarija Marijagandik. Artu eban gatx andi batek: Marija beragaz gura edo eban gaztetatik, gero otzitu ez ekijon bera ganako zaletasun ta deboziñoia. Azkenengo arnasetan eguala agertu jakon Aingeruren Erregiña, eta arpegirik gozatsuenagaz esan eutsan: *Ene semia, ez nozu ezagututen? Ni naz çuk ainbeste bidar deitu deutzazuna: ni naz errukijaren Ama*. Berba onetara idigi zituzan mutiltxuak bere begijak, jaso zituzan besuak zeruruntz, eta egaan jaun zan bertara Aingeru baten gisan. Zenbat ikasi eban denpora gitxijan! Onera ta mesede geijago erakarri eutsan Marijaren debiziñoia zein biarra dan erakustiak, munduko jakiturija guztijak baño. Entzun beste gertaera labur bat, baña ondo itzaltsu ta negargarrija. Diño San Gregorijok, Ama batek eukala besartina bost urteko ume bat, baña ain gaiztua ze ziarðun berari birauak egiten. Agertu ziran Demonio baltz, itxusi, ta ikaragarri batzuk, kendu eutseen erpe zorrotzen artian, eruan ebeen gorputz ta arima infernura. Begira gurasuak ta umiak, zein mesedegarrija dan gazte gaztetatik Marijari deboziño egijazko bat eukitia, ta zein kaltegarriak ume denporako gaiztakeriiaak.

BIJARKO LORIA

Mun egijozu iru bidar luurrari, bakoxtian esaten dozula: Zergaitik arrotuten az lurreko eta sutako autsa?

Sarri esateko erregu laburra.

Tu nos ab hoste proteje, et mortis hora suspice.

Zaindu gaizuz arerijuagandik, ta artu gaizuz erijotzako orduan.

BEDERATZIGARREN EGUNA

Guztjoen azkenengo juiçziuren gañian.

Juizijoko egunian agertu biarko dot Juez aserratuaren aurrian. Ze bildur ikaria niria bera ikusi dagidanian! Zan neure Aita eta, ez neban maitetu, zan neure Jaungoikua, eta ez neutsan jaramonik egin, begi okerrakaz, albakea ta ziarretara begiratu neutsan. Alde alde batera iminiko deustaz begijen aurrian neure esker txarra, nire erantzuera dongian, nire gaistakerriak, nire lotsabagakerija. Nogana zuzenduko naz orduan? Marijagana? Baña, zelan azartuko naz berari begiratu bere egiten, baldin neure pekatuakaz kurutzian josi badot sarritan bere seme maitia? Zaindu ta gordeko ete nau neure Aingeru jaokiak? Baña zekan baldin zik ez badot inoz egin bere esanik? Demonioa izan zan beti nire adiskidia; bada bere izango da an nire salatzallia.

Nire pekatuak agertuko dira mundu guztijaren aurrian. Ze lotsarija! Neure lagunen aurrian, zeintzuek neunkeen Aingerutzat; neure gurasuen aurrian, zeintzuek uste ebeen ain ona ta garbija nintzala; neure konfessore, guzurragaz engañoau nebanaren aurrian. Barriz guzti guztijak, diran diranak batxu bere itxi baga agertuko dira; gogoraziñorik ezkutubenerañoakuak; guraririk ixillenerañoakuak; arako pekatu neuk neure bakarrian egin nebana; arako egin nebana etxian; gelan, eskolan, bidian, Eleixan. Ay au lotsarija!

Gero emongo da epai edo sentenzija, edo salbaziñoekua, edo kondenaçiñoekua. Emongo dau Jesukristo bizijen ta illen Juezak. Jaun onek deituko deust bedeinkatua, edo madarikatua. Norako izango eta naz? Juango ete naz Jesukristogaz zeruko erreinura, ala Luziferregaz infernuko presondegira? Eta zein atzeratu eta deiteke epaija? Ez, ez da unetxu bakar baten bere. Ezingo ete da aldatu? Inoz bere ez. Ze poza ta gozotasuna niria dantzudanian diraustala Salbagilliak: Erdu neure Aitaren bedeinkatua, gozetara pretaurik jaotzun Erreinuua. Baña ze ikaria esaten baldin badeust: Alde egik nigandik, madarituua, joadi betiko sutara! O neuure Jaungoikua! Zein esango ete jat? Eta, zelan izan deiteke, jakiñik ziur egun au elduko jatala, ozta ozta gomutau bere egitia ainbeste juatan gauza bategaz?



EJENPUA

Gura badozu ondo urten Jaungoikuak egunen baten artuko deutsu-kontu ziatz eta estuetan, izan zaite Marijaren deboto egijazkua; bada beronek artuten ditu beronen egapian bere serbitzarijen arimaak, eruaten ditu Jesusen aurrera, ta alkantzetan deutse beriko zorijontasuna. Alantxe egin eban Carlos eritxon Santa Brijidaren seme bategaz. (Rev. lib. 7 c. 13) Ill zan mutill gazte au bere Amagandik leku arrotz ta urriñian soldautzan, arimia betiko galduteko ainbeste arrisku izan oi ditubanian: ta orregaitik eukan bere Amaak, seme onen salbaziñoiaren bildur andi bat. Baña Marijak adierazo eutsan salbau zala, berari euki eutsan amodikua gaitik: berak lagundu eutsala erijotzako orduan: alkantzau eutsala denporia ta grazija ondo konfesau ta komulgetako, ta pekatuen damu egijazkuagaz bizitzia amaituteko. Baita bere ikusi eban Santiak berak eguala Jesus jartoki baten, ta Demonioa aurrian, salatuten ebalari Marija Gauza bi gaitik. Bata ez eutsalako Marijak itxi Carlosi esesten erijotzako orduan. Ta bigarrena, Marijak berak eruan ebalako Carlosen erimia Jesus auziepalla edo Jueza-ren aurrera, eta salbau ebalako berari entzun bagarik: berak barriz eukazala gauza asko zetan salatu Carlosen arimia Ikusi eban gero, zelan Jesus-ek bota eban andik Demonio salarzakia, eta Carlosen arimia eruan ebeela zerura. Zorijonekuak egun larri onetan Marijaren serbitzari egijazkuak.

BIJARKO LORIA

Oera etzieran iruditu zaite orduantxe jatortzula Jaungoikua zueri bizitza guztiko kontu ziatz ta estua artutera, eta begira zer dirautsun zeure konzienzijak.

Sarri esateko erregu laburra.

In die judicii libera me Domina.

Juzijoko egunian librau naikezu, Andria.

AMARGARREN EGUNA

Infernuaren gañeko gomutia.

Pekatarija. badakutzu arako presondegi itzaltsu, kee, su, eta garrez beterikua? Zuretzat dago prestaurik onduten ez bazara. Begiratu egijozu ondo: an erreko da zure arimia, an erreko da zure gorputza, aren pekatuko laguna. Sartuko jatsu sua aotik, estarritik, eta elduko jatzu un eta errai-jetaraño: geratuko zara, errementarijan goritu ta galdaturiko burdiña baten gisan: eta alde guztijetatik baotako dituzu gar ta txinpartak, Damonioak emongo deutsuezan ots eta zapladakaz. Zelan biziko zara infernuko su atan, ezin badozu euki atz bat kandela edo kruselu baten gartxuan?

Bitartian, zelanguak izango dira zure gogoraziñoiak gar gori tragala areetan? Gomutetia salbau zintzatekezala neke gitxigaz, eta ez zenduala gura izan: gomutetia arako semoiagaz, arako Misiñoiagaz, arako Maijatzeko loragaz, arako liburuagaz, arako argitasunagaz, zeñen bitartez deituten eutsun Jaungoikuak, eta zeñi ez zeuntzan zuk jaramonik egin gura izan. Begiratuko dozu andik Zerura, eta an ikusiko dituzu zeure ezagun asko, zeure adiskide asko, zeugaz eskolan, biarrian, bidian ibikki oi zirianak, zeugaz berba sarritan egin oi ebenak, zeugaz artuemonak euki zituezanak, zu barriz infernuan. Gomuta onek gogait eragingo deutsu, amorratu eragingo deutsu, orrua eragingo deutsu, eta ezarriko deutzazuz birao ta madarizaziñoie ikaragarrijak zeure buruari, zeure Aingeru jaoliari, zeure bitarteko santuai, Ama Donzella Marijari, eta Jesukristori berari. O ze bizitza zorizgastokua! Ze lan ta egoera errukarrija infernukuak daukena!

Eta baldin jausten bazara su atan, izango ete denpora askorako? Izango ete da eun urterako? Geijago. Izango ete da milla urterako? Askosaz geijago. Milliñoie bat milliñoie urterako? Geijago ta geijago. Milliñoie ta milliñoie bedar milliñoie urterako? Geijago, askosaz geijago. Bada, nois artian egon biarko dot? Jaungoikua Jaungoiko dan artian, beti, beti, betiko iraunian. Eta ain denpora luzian, ez dot eukiko une edo instantetxu bakar bateko atsegiñil? Ez Edola-bere ezingo deutst zirkiñik eragin atzamar bati? Ez da. Ez jataz gitxituko neure penaa begijak itxi idigi bateko denporan? Bat bere ez. Ez deustee emongo ur tantatxu bat? Ez, iños-bere ez. O sua! O infernua! O betiko irautia!



EJENPLUA

Baldin badaukazu salbetako gurari egijazkua, eskatu egijozu Marijari, ezagutu eragin dagizula zer dan infernua. Hugo Toskanako Markes bat bizi zan gauztakerijetan, ondu nai ezik, Marijak egin eutsazan dei askogaz, bere pekatuen artian arrezu batzik egiten eutsazalako. Ziarduala bein baten eiz edo kazan Senario deritxon mendijan, alde alde batera asi ziran trumonadaak, oñaztuak, ta euri zaparrada andi bat. Liorpe bat billatu nairik sartu zan koba baten, nun aurkitu zituzan Diabruak gizeonen irudijan, baña baltz, itxusi ta ezañak, ziarduela mallubakaz txikituten Kristunauen azurrak. Ikusi zituaneke, ikaraturik guztija egin eban diadar andi bat sinisturik duende, sorgin, edo pamerijalak zirala. Andik laster entzun eban illuntasun atan ziñual batek diadar itzaltsu bategaz: *Eldur or dagan orri bere, eta ekarri egidazue ona. Eta erantzun eutseen: Bere denporan bada oruindik ez deusku itxiten, gagan eskubide ain andija daukanak*: adierazoten ebeela demonioak, Marijak gorde ebala artietan beriko galdunenditik. Entzunik Hugok berba oneek, geratu zan konort eta adore bagarik, eta al eban moduan biurturik Marijagan, eskatu eutsan laguntasuna, egin eban kurutze bat, eta iges ebeen demonioak. Urten eban kobaotik, juan zan basamirtu atan bizi zan Eugenio eritxon Jaungoikuaren serbitzari, baten txabolara, eta an igaro eban gaba, onduteko asmo senduetan. Bijaramon goixian juan zan Florenzijara, esan eutsan Obispo Jaunari zer igaro jakon, ta ze mesede andija artu eban Marijagandik. Konfesau zituzan bere pekatu guztijak, egin zituzan penitenzijaak agirijan ta jentiaren aurrian, itxi eutseen osoro bere gaiztakerija guztijai, artu eban bizitza guztiz on bat, negarrez ta diadarrez ziñuala: *Hugo ez da onezkero izango Hugo*. Egin zituzan zazpi Konbentu: emon eutseen zegaz bizi: andik aurreta izan zan Marijaren serbitzari egijazko bat, ain modutan ze, deituten eutseen Prinzipa ona.

BIJARKO LORIA

Eleixan belauniko zagozarian, esan egizu zeure artian: Ze pena andija izango letzatekian ementxe belaunikoturik egotia beti iraun edo eternidade guztijan! bada, zer izango da infernua? zer izango da infernua?

Sarri esateko erregu laburra.

A paenis inferni libera me, Domina.

Gorde nagizu, Andria, infernuko penetatik.

AMAIKAGARREN EGUNA

Zenbat diran kondenetan diranak darakuzan irakurte aldija.

Neure arimia: beeratu egizuz begijak, begiratu infernuko laba gorira, eta zenbatu egizuz al badozuz an dagozanak. Begira zenbat diran Jesukristo mundura etorri baño lenagokuak. A da Cain anaija bitatik bata salbau zan, ta bestia kondenau zan. Areek dira Noeren denporan ujol bategaz mundu guztija ondatu zanian ito ziranak. Etxadi edo familia batekuak bakarrik salbau ziran; beste guztijak edo geijen geijenak kondenau ziran. Areek beste an dakutsuzanak dira Sodoma ta Gomorrakuak. Begira onezaz gañera, zenbat jentik fede bagako, Ciceron, Aristoteles, Seneka, Egipto-arrak, Amalek-arrak, Canaan-tarrak, Asirija-arrak, Fenizija-arrak, Grezija-arrak, eta Erroma-tarrak. Begira zenbat dagozan Hebreo-tarrak, Jaungoikuaren erri autukuak bere.

Baita bere ikusiko dituzu beste ezin kontau-al Jesukristoren denporakuak, Jesusen federa biurtu ez ziran Jentillak, jakitun arro pekatuan gogortuak, Jesukristo persegiduebeen Judeguak; Salbagilligaz beragaz berba egin eta ibilli ziran asko; bere mirarijak ikusi zituen asko; An dago Pilatos Judeako agintarija, an dago Caifas Eleizgizon nagusija, Herodes Erregia, Judas Jaunaren eskolakua, eta lapur bat Jesusen onduan ill zana.

Zenbatu egizuz azkenik Jesukristoren denporatik ona kondenau diran guztijak. Begira zenbat Ebanjelijuari jarki jakozanak! Zenbat mirarijetara itxutu ziranak! Zenbat Eleixiaren persegitzallaak! Lelengo iru gizaldijetako Erromako Agintari-nagusi guztijak, eta arako sermolari, esale, jakitun, eta bertsolari, mundu guztijan ain ospetsu ta entzute andikuak. Begira bere zenbat kristiñau dagozan egijazko fedia euki ebeenak, Jaungoikuak deitu eutseenak; bere berba santua entzun ebeenak, eta sakramentuak artu zituezanak. Begira zenbat Errege, Erregiña, Jaun, andiki, ta aberats; eta badira bere Eleizgizonak, Pralliak, eta Obispuak. Eta oraitxe ordu onetan zenbat, zenbat arimak sartuten ete diarduen infernua!

Baña esan ziñaike: pekatari guztijak kondenauko badira nor da zerura juango dana? Ah! Ezin zenbatu leitekezan beste dira kondenau diranak. Eta Jaungoikuak, zer galdu dau orregaitik? Ze gatx eta kalte etorri jako zeruari? Ay neure arimia! Jarraitu, jarraitu egijezu gitxijai ta ondo bizi diranai, salbau gura badozu gitxijakaz.



EJENPLUA

Jazoera onek erakusten dau argiro, ze mesede andijak dakazan Marijaren deboziñuak. Milla zazpireun ta amalagarren urtian bizi ziran Flandesen mutil gazte bi estudijetan ziarduenak: bijak askatu ta nabarmenak. (Auriem. t. 1. p. 47) Igarorik bein egun oso bat jan edanetan, juan ziran azkeniak gaba igarotera emakume galduen etxe batera. Gabak ordu asko emonda, juan zan bata bere etxera ta bestia geratu zan bertan, edaten Babilonijako ontzijaren edari berenoz betia, azkenengo ondar ta apakiñe-taraño. Eldu zanian lelen go au bere etxera, gomutau jako ez ebalá oraindik errezaú, Marijari oi eutsan Abe Marija bat. Ez eukan legez onetarako gogorik, errezaú eban ganora baga ta erdi lotan. Oeratu zan, ta dana man-kauta eguan legez, bertatik luak artu eban: denpora gitxi barru orra nun entzuten dituzan ots andi ta ikaragarri batzuk bere gelako atien: iratzartu zan, ta atia idigi baga ijusten dau bere lagun errukarrija dana ezaindurik eta baltziturik. Ikaraturik guztija, ta mirariturik, gomutau baz zelán sartu zatekian atian itxirik eguala, egin eban diadar bat zinuála: *Zer da emen?* Eta bera lagun zorigaitzokuak erantzuten deutsa: *Jakin egizu Jaungoikuak erabagita eukala gaur gabian bijok infernura betiko jaustia; baña zu gorde zaitu Marijak erijotzatik eta infernutik, errezaú dozulako oi deutzazun Abe Marija; ni kondena-urik nago. Ain kaletan (izentaurik) dago nire gorputza demonioak zaurituta.* Eta siñistu egijan zala egija zirautsana, agertu eutsan bularra, nundik urte-ten eutsen gar andijak, eta zulatu ta puskatuten eutsen gar andijak, eta zulatu ta puskatuten eutsen suge ikaragarriak eureen ezten ta suster zorrotzakaz. Berba onek amaitu orduko iges eban. Beriala jagi zan bestia oetik, eta emon eutsan negarrari. Onetan entzun eban Aita San Franciskoren konbentuan jotén ebeela kanpaña maitiñetarako, eta ezaguturik Jaungoikuak berari egiten eutsan deija zala, dua arin aringa, entzuten da ango Jaunaren serbitzarijen oñetan, eta eskatuten deutsee erregurik bizi-jenakaz habitu santua. Adierazo eutseen bere jazoeria, ez eutseen lelen-guan sinisterik emon; baña ezagutu ebeen zala egija, juannik euretariko batzuk izentetan eutseen kalera, aurkitu ebeenian illik eta guztiz ezaindu-rik bere lagunaren gorputza. Orduan artu eben euren artian, eta asi eban bizitza barri guztiz on, ta laztasunez beteriko bat. Bere bizi guztijan emon eutsazan eskerrak Marijari mesede ain andija gaitik, egijaz esan euskijola: *Tibi gratias quia non ardeo*: zuri eskerrak infernuan erretan ez banago.

BIJARKO LORIA

Erabagi egizu zer egingo dozun egunoro zeure bizitza guztijan Marijaren inenian, eta eskiñi beti egitia, gordez aizan infernutik.

Sarri esateko erregu laburra.

Gratias tibi, Virgo, quia non ardeo.

Eskerrak zuri, Ama Donzella, erretan ez nagualako.



AMABIGARREN EGUNA

Kristiñauak Jaungoikuaganako daukan eskerbagatasunaren gañian.

Zer geijago egin daikezu, neure Jaungoikua, ni salbetako? Nik ez dakit beintzat. Deitutuen badeustazu errukizko oles, ta txistuakaz, artuten dot itxaropen alper bat zure ontasunian, eta diardut pekatu egiten. BILDURTUTEN banozu zeure aserriaren gogortasunagaz, galduten dot itxaropena, eta darraikot pekatuari. Bigunduten badeustazu bijotza, orduan bere ez deusat itxiten pekatuari, zematuten banozu, ain gitxi. Orain ezkotuten ditut neure malkuakaz Jesusen oñak, eta andik laster idigiten deusdaz bere zaurriak pekatu barriakaz. Ezin nik aditu dot, zein andija dan gaiztakerija ta eskerbagatasun au.

O neure Jaungoikua! Zer geratuten jatzu egin baga ni salbetako? Zuk imiñi ninduzun Eleixa santan, emon deustazu argija zu ezagututeko, deitu deustazu iratzartuteko, lagundu deustazu goituteko Luziferren, aragijaren ta munduaren esetsijak: itxi deustazuz Sakramentuak osatu eta santututeko; askoren ejenplu eta bialdu deustazuz naibagiak, zugana biurtuteko. Pekatu egin nebanian kastigau nindukezun, eta parkatu zeustan. Bestiakaz izan zara gogorra ta nigaz bigun ta errukiorra. Azkenik ez jatzu ezer geratu egin bagarik ni salberako, eta nik bere al nebana egin dot, zuri jarki ta gogortuteko. Zer geijago eskatu daikezut, Jauna, salbetako? Zeure odola? Guztija isuri ta bota zenduan nigaitik. Zeure arimia? Imiñi zenduan Aita zerukuaren eskuetan nigaitik. Zeure gorputza? Izan zan kurutzian josija nigaitik. Zeire aragija? Beti dago prestatuik altarako mai santuan nire janari izateko. Nik ez dakit ze mesede barri eskatu neikezun ez pekatu egiteko, eta alanbere pekatu egiten dodan bakotxian, dirudi nire bijatzak diñuala, ez deustazu biar besteko laguntasun ta grazijarik emoten. Ay zein zentzun bagia nazan, ez badut ezagututen ariñ aringa ta lau oñian nuala infernuko leza sakoneruntz, eta au bakarrik neure erruz, bakarrik neure gaiztakerijaz.

EJENPLUA

Ez bakarrik izan biar dogu erantzuera ta esker onekuak Jaungoikuaganako, baita Marijaganako bere, egon deuskuzan mesede andijak gaitik. Orra bat ez txikijetarikua. Kristiñauak Turkuari irabazi eutseen garaitza

edo bitorija miragarrija Lepanton, milla bosteun eta irurogeta amaika garren urtian, izango da beti, Marijaren bitartekotasunaren, eta deuskun amodijuaren ezaugarri ziur bat. Eun eta geijago urte ziran egozala kristiñauak larritasun andijan Turkuen garaitzakaz: baten ondorik bertatik irabazten eben bestia: alam laketu edo permitietan ebala Jaungoikuak, bate-tik kristiñauen pekatuak gaitik, eta bestetik humiltasun ta fede bizi bategaz beragana zuzendurik, erakusteko bere besuaren sendotasuna, ta Marijaren bitartekotasun altsua. Selim Turkuen egintari nagusijak kendu eutseen Venezijatarrai Chipre deritxon ugarte edo islia: arroturik irabazi onegaz artu zituzan asmuak menderatuteko kristiñauen erreñu guztijak, eta kenduteko guztiz lurraren ganetik Jesusen fedia. Era atan zan Aita Santu Erromako Pio Bostgarrena, gizon fede biziko ta birtutetsua, zeñek beti eukan itxaropen sendo bat Marijaren laguntasunian. Aita Santu au bada batu ta alkartu zan Venezijatarrakaz, ta Espanatarrakaz: baña guztijak batu arren, ez eutsen urrik bere emoten Turkuai: eta begiraturik euren jendedi ta ontzidijari, zorakerija bat zirudijan areei jarkiteko asmuak artutia. Agindu zituzan amabost eguneko baru ta penitenzijaak, baita bere guztijak eskatu egjuela Marijari berarizko laguntasuna. Emon eutsanian, bedeinkazinoia D Juan de Austria kristunauen ontzidijaren buru ta egin-tarijari, adierazo eutsan, ze garaitza miragarrija irabaztera joian: baita bere esan eutsan, bialdu egizala eureen etxeetara soldau donga guztijak, batzuen pekatuak gaitik, guztijak kastugau ez egizan Jaungoikuak. Berak barriz, beste Moyses batek legez, jasoten zituzan bere beso ta errekuak zeruruntza, jaristeko krestiñauentzat laguntasuna. Urrijaren zazpijan jarri ziran aurrez aur ontzidi bijak: esetsi eutseen alkarri gogortasun ta amorru-rik andijenagaz, eta era baten zirudijan goituak izan biar ebeela kristiñauak: baña Marijak entzun zituzan eureen errekuak, jari zan eureen aldetik, eta beriala irabazi ebeen garaitza miragarri bat. Turkuak geratu ziran zatitu eta triskaurik: ill zituezan ogeta amar milla: artu eutseezan bost milla: atrapau eutseezan eun eta ogeta amar ontzi ondasun ugariz betiak; eta beste larogeta amar bota zituen itxasoko ondarretara. Aita santuak euko eban garaitza onen barrija zeruko argitasun baten bitartez, irabazi zan une atan beratan, ta adierazo eutseen beragaz egozan Kardena-lai: Ondo ezagaturik Marijari zor eutseela garaitza ain miragarri au, agin-du eban aurreruntian esan zeikijozala letañetan berba oneek: *Auxilium cristianorum: ora pro nobis*: Kristiñauen laguntasuna: erregutu egizu gugaitik. Egun ta garaitza au zelebretan dau Eleixa santiak Errosarijoko Domekan. Begira bada zein esker onekuak izan biar dogun Marija ganako.



BIJARKO LORIA.

Juan zaite Marijaren irudi baten aurrera, eta eskatu egijazu alkantzau dagizula grazija izateko esker onekua, bere seme Jesusek ta berak egin deutesuan mesedeetara: eta orain artian euki deutseezun esker txarraren perkazinoia.

Sarri esateko erregu laburra.

Vita, dulcedo, et spes nostra, salve.

Jaungoikuak gorde zaizala geure bizitza gozotasun, ta itxaropena.

AMAIRUGARREN EGUNA

Iñori pekaturako bidia emon, edo eskandaluaren gañian.

Eskandaluko pekatu da pekatu guztiz andi bat, bada beragaz ostuten jako arima bat gizonen Salbagilliari. Arima ori kosta jakon erijotzako larritasun eta agonija; lotaarijak, burlaak, pena guztiz andi ta portitzak, bere zanetako odol guztija, eta bizitzia bera. Eta zu azartuten zara berari kenduten? Eta egin utsa, ta alperra izan dedilla beretzat Jesusen pasioia? Eta allagiña mingoztu bere bijotz guztiz maitegarrija? Onelan egiten zara demonioaren antzeko zein lelengotik izan dan arimeen eralla ta ilgillia. *Ille homicida erat ab initio.* (Joan 824) Zu bere izan zare ilgillia zeure ume denpora ta gaztetasunetik, arako egitada ezañakaz, arako berba nasaijakaz, arako begi itxijakaz, arako pekatuan jausi eragiteko aleguiñakaz. Alan kendu deutseezu bizitzia ainbeste arima errubagai. Ay au desleijaltasuna! Ay au gaiztakerija! Au pekatua!

Eskandaluko pekatua da pekatuen muintegi, eta azitoki bat. Arako gaztiak egin daben pekatua zure erregu, ta irakatzijagaz, zuria da: baita bere arek gero egin zituzan guztijak zure irakatzija gaitik, zuriak dira. Zugaitik pekatu egin eban arek, eta gero bera jarri zan besteen irakasla egiñik: bada oneek egiten dituen pekatu guztijak, datozen legez zure lelengo eskandalutik, zuriak dira. Ze pekatu aldra eta tegi neurribagia daukazun zeure gañian!

Eskandaluko pekatua da Jaungoikuari egiten jakon zor ikaragarri bat. Eskandaluko pekatu bat egiten dabena, jargiten jako Jaungoikuari, esesten deutsa berari, jarten da demonioaren aldetik, eta lagunduten deutse gitxituten Jaungoikuaren gloriya. Zu, pekatari eskandalosua, zu zara ezaindu dituzuna altaraak eta Eleixa santuak zeure berbeta, barre, modu txar eta menturaz gauza dongaguakaz. Zu zara Jesuskristori arimaak ostuten deutsazuzana, bere bijotzetik ateraten deutsazuzana, Demonioaren erpetan iminten dituzuna, eta zeruetako arreiñua galdu eragiten deutsezuzana. Beraugaitik, zeugan danez, kenduten deutsazuz Zerubai bere garaitzaak, Jaungoikuari bedeinkazinoiak eta alabantzaak, bere serbitzari leijal izango ziranak galduten dituzu, eta emon diabruari infernua betetako, eta ezarri deijuezan birao ta madarikazinoiak zeru ta lurraren Jaunari.

Adituten dozu ondo zein andija dan egin dozun zorra ainbeste eskandalugaz? Alanbere begira, baldin zeure bizitza on irakatz, ta erre-



guakaz irabazten badozu edola-bera arima bat, galdu dituzun ainbeste arimaren orde, onenbestegaz geratuten da pozik eta geijagoko eskabide bagarik. Zor ain andijaren pagutzat ain neke txikija artuten dau. Eta, ez dozu gauza ein erraz eu egingo?

Sarri esateko erregu laburra.

A delicis meis munda me et ab alienis parce servo tuo.

Garbitu nagizu neure pekatuen orbanetatik, eta iñori eragiñak bere parkatu egijozuzu zeure serbitzari oni.

EJENPLUA

Baldin iñori emon badeutsazu biderik gauza txarretarako eta pekatutarako, zuzendu zaite Marijagana, ta alkantzauko dozu parkazinoia, alkan-tzau eban legez Aviñonen onelako batek. Au zan gizon zaar edade andi-ko bat: gitxi eretxirik bera dongia izatiari, nai eban enparauak bere bera lakuak izan zeitezan: onetarako dongari esaka oi ziarduan Marijaren batzaar, kofradija, ta bere Eleiskizun edo funziñoiak gaitik, baita bere eureetara juazanak gaitik: ta zan legez zaarra, askok sinistuten eutseen, eta egiten zituzan erimetan kalte andijak. Artu eban alako baten gatx andi batek, baña erijotzia urrian euki arren bere, ez zan aldatuten bere bijotza, ta ez eban emoten damututa eguanaren ezaugarri edo señaerik. Azkenik eldu zan Marijaren sorrera garbiko eguna, zeñetan Marijaren kofradija-kuak eukeezan Eleiskizun andijak: dempora onetan (dudatzaka Marijaren bitartekotasuna gaitik) asi zan geixua konturatuten: gomutetan da bere leengo bizitza gaiztuagaz, eta beriala geratuten da guztija aldaturik, ikus-ten zituzala gauzaak linguaz bestera. Agindu eban ekarri egijueka batzar edo kofradijako buru ta zuzentzalla Sazerdotia, zein leen begiz ezin ikusi eban, ta zein egin eutsazan txarkerija osko. Badator Sazerdotia, laztandu-ten dau geixuak, parka eskatu, ta erregututen deutsa konfesau dagijala, eta azkenik eskaten deutsa sartu dagijala kofradijan. Sartu eban, eta geixua osatu zan laster, arimako ta gorputzako gatxetatik, ta jagi zan oetik indar senduakaz ezar igaro ez baleu legez.

BIJARKO LORIA

Ekandu zaite aurreruntzian Marijaren izenian egotera Eleixan modu guztiz onagaz, albueta, ez iñori begiratu baga, barbarik egin baga, leen zeure modu txarragaz bestiai emoniko galdubidia gaitik; baita bere baldin zeure pekatuakaz oñori pekatutarako biderik emon badeutsazu, osotu egi-zuz erimetan egindako kaltiak bizitza on bategaz.



AMALAU GARREN EGUNA

Mundutarren esamesen gañian.

Ondo gura zenduke, eta ez zara onduten. Nok eragozten dutsu? Mundutarren esamesen bildurrak. Ez banua geijago ain etxetara, esango dabee konfesoriarik galerazo deustala. Itxiten badituz arako lagun dongaak, usteko dabee iges egin biar dodala basamorturen batera. Ez badituz esaten arako berba erdiz erdizko zikiñak, jakiturija gitxikotzat eukiko nabee. Begijak beera begira badarabildaz, ez banuz batzaar nastuetara, dantzetara, barre egingo deustee, eta esango dabee: Eleiszale ta beato edo beata bat nazala. Beraz mundutarren esames bat gaitik juan gurko dozu infernura? Ze zorakerija!

Santu izan gura zenduke, eta ez zara inoiz onetara erabagiten. Nok eragozten deutsu? Mundutarren esames batek. Itxiten badituz ardangelaak, jokuak, probaak... esango dabee ezetarako gauza ez nazala. Jantzi ederrakaz apainduten ez banaz, esango dabee traskil, baldres bat nazala. Ikusten banabee sarritan geixotegijetan, Eleixetan, konfesau ta konulgetan, esango dabee bazterrak engañetan nabillela. Eta ez dazauzu utsa balijo daben bildur bat gaitik geratuz zariala santu egin bagarik mundu onetan eta bestian? Ze bildur alper ta erua!

Bada lotsatuz bazara Jesusen jarraitzaile agertuz zeure burua, bera bere lotsatuko da aintzakotzat zu ezagutuz. Berberak esanik dauka: lotsatuz danak nigaz eta nire ikaratzijagaz, jakin begi, Ama Donzelliarren Semia bere lotsatuko dala beragaz. Jauna, Jauna, esango seutsazu juijiziko egunian, ez nozu ezagutuz? Kristinaua naz. Ez aut ezagutuz, erantzungo deutsu Jesukristok. Lotsatuz intzan kristiñau ontzat agertuzten, begijak beera begira erabilten, mezia belauniko entzuzten, sarritan konfesetan, nire izen santuari burua makurtuzten, kurutze santiaren astiro ta ondo egiten, abe marijetakuak errezetan, eta orain diñok kristiñaua azala? Oa eure lagun dongakaz, nasaijakaz: oa Demonioakaz: eurak azau-bee, ni ez azaut.

EJENPLUA

Munduko esamesen bildur guztien artian kaltegarriena da, atzeratuzten gaituzana, agertuteko geure arimako zaurijak, eureen osagilla konfesoriarik. Ondo egijaturik ikusi eban au gizon batek berberagan Alemanijan. (Auriem. t. 2. p. 101.) Jausi zan pekatu guztiz andi baten, eta gero allagiñakua zan konfesetako eukan lotsia ze, ez zan azartuzten ezargaitik bere konfesoriarik agertuzten. Ain ziran barriz andijak bere konzienzijak emoten eutsazan kezka ta aginkadaak eze, ezin igarorik bere pena ta nabagia, erabagi eban urari burua emon, eta itotia. Bajoian onetara, baña Jaunaren errukijaz geratu zan ugertuzian. Biurtu zan negarrez etxera, eskatuzten eutsala Jaungoikuari, parkatu egijozala bere pekatuak, bere eskubi-diaren osotasunagaz, *De plenitudine potestatis*, berak esan oi eban legez, konfesau bagarik. Juan zan Ermitetako santu askogana, baña guztija alperrik, zerren ez eban inoiz bake ta atsegiñik aurkituzten. Jaungoikuak nai eban izatia Marijaren bitartez. Gau baten estutasunagaz larritu ta nekaturik geratu zan lotan, eta orra nun jotuz dabee sorbaldan dirautseela. *Zuaz konfesetara*. Beriala jagituz da oetik, eta zuzenduzten da urrian eguzti Jesuiten konbentu batera, konfesetako goguzagaz: baña eldu zanian ataira esetsi eutsan barriro lotsiak ta biurtu zan atzera. Igarorik ill batzauk, barriro izan eban gau baten beste dei bat, eta dua bigarrenez bere goitu eban lotsiak. Ehoera onetan erabagiten dau lenago illtia pekatuak konfesau baño: baña grazijak zirikatuz ta deituzten eutsan sendaro, ta alan eguztijan jarduzten eban bere artian esetsi ta burrukan. Azkenik illuntzian etxera joiala, sartuzten bide batez Marijaren irudi eder bat eguzti Eleixa baten, eta jarririk belauniko bere aurrian eskatu eutsan, arren errukitu zedilla beragaz, eta atera egijala estutasun aretatik. Eta Ama errukitsu onek entzunik ondo laster egin eutsan erregua, jaritxi eutsan sari ugari ta garaitza osua bere seme Jesus gandik. Bertatik aldatuzten zan guztiz bere bijotza, jagi zan, billatuzten eban konfessore bat, damu ta negarrakaz autortuzten, ta agertuzten deutsaz bere bizitzako pekatu guztijak, artuzten dau absoluzinoia, eta beragaz gauza miragarrija! alako arimako bake ta poza eze, ziñuan, ez ebalan ainbestekorik artuzten munduko urte guztija irabazi baleu bere.

BIJARKO LORIA.

Edonundik zuazala aurkituzten dozunian Marijaren irudiren bat, burua makurtuzten, agur egin, ta errezau eikijozu Abe Marija bat, eta inoiz itxi au egin baga, bestegaz zuazalako, ez nortzuk-bait zakuzelako.



Sarritan esateko erregu laburra.

Sancta Maria, Mater Dei, ora pro nobis peccatoribus.

Santa Marija, Jasngoikuaren Ama, erregutu egizu gu pekatarijok gaitik.

AMABOSTGARREN EGUNA

Zeruko glorijaren gañian.

Zer da naijen zendukiana mundu onetan? Goguak emoten deutsun leguetatik ibilli al izatia? Zerura bazuaz ibilliko zora zeure aukeran izarretatik, illargitik. Une edo instante baten, begijak itxi edegi baten jatziko zara nai dozunian zerutik lurrera, eta beste baten igon lurretik zerura. Sarrutuko zara gura dozunian lekurik zarratu eta ezkutuenetan eragozpen guztijak beriala goiturik, eta iñoren bildur bagarik.

Zara soñu zalia? Ay ze gozua ta ederra dan Aingeru ta zoriñonekuak zeruan joten dabena! Entzunik Aita San Franciskok Serafin batek jo eban apur apur bat, geratu zan konort bagarik gozotasunaren indarrez.

Gura zenduke euki gorputz eder eta galanta? Zerura bazuaz zure begijak argi egingo dabee izar eder bik beste, zure arpegija izango da eguzki bat, zure eskuak egongo dira apaindurik arru balijotsu eta diamantiakaz, eta gorputz guztija eukiko dozu argitasun eta edertasunez jantzirik.

Gura zenduki izan jakituna? Salbau zaite; eta beriala izango zara jakintsuago Salomon, eta munduko filosofo guztijak baño. Ikasiko dituzu alde alde batera eta nekatu bagarik munduko jakiturija mueta guztijak.

Mundu onetako gauzeen edertasunak zoreturik iminten zaitu? Ay zeunbat ederrago dan eureen Egillia! Zeruan ikusiko dozu arpegiz arpegi, eta egongo zara berari begira ur urretik, eta bera ikusijagaz beste baga, geldituko zara beriala zoriñoneko eginik. Onezaz gañera, ze poza izango da ikustia Aingeruak, ikustia Adan geure lelengo Aita, Abraham Aitaleena, David Erregia, Apostoluak, Martirijak, santu eta santa zeure bitartekuak, ikustia Marija, ikustia Jesus!

Gura dozu izan aberatsa? Bada salbau zaite eta zeuria izango da Jaungoikua, zein dan munduko ondasun guztijen Jaun eta Jaubia. Bai: Zeuria izango da, ezingo deutsu iñok kendu, eta ezingo dozu ezelan galdu. Bera izango da zuria, ta zu izango zara beria betiraun guztijan.

Beraz, ondo ero ta zentzun bagia da, utsa balijo dabena, ta beriala amaituko diran ondasun ta onera batzuk gaitik, zerua galduteko arriskuan jarten dana.



EJENPLUA

Gauza txiki bat Marijaren izenian egitia asko izan da sarritan pekatariarik andijenak alkantzetako emen arimako grazija, ta gero zeruko glori-ja. Bajoian itxasoz Genovatik Savonara zaldun gazte aberats bat iru Erli-jiosogaz; eta oi eban legez, ziarduan irakurten liburu donga, berba neur-tu, edo bertso nabarmen, amodijo nasaikuak eukazan bat: eta ain atsegin andija emoten eutseen ze, ziñuan, ez leukiala salduko diru asko gaitik. Erlijososo batek esan eutsan. *Egingo zenduke gauza bat Marijaren izenian, ta berak nai dabelako? Ori bai Jauna*, erantzun eutsan zaldun gaztiak, *Marijaren izenian, ta Marijak nai izan ezkeru, edozein-bere gauza egingo dot. Ondo bada*, erantzun eutsan Erlijosuak, *urratu itxasora Marijaren naija egitiagaitik. Orra emen nun daukan* erantzun eutsan gaztiak, *bota begi. Ez*, esan eutsan oneta-ra Erlijosuak, *zene zere eskuz egin biar deusazu Marijari eskintsari au.* Orduan zaldunak aterarik patrikeratik kanibet edo kutxillo bat, erdibi egin eban liburua, ta bota eban bata uretara, ta emonik bestia Erlijosuari bota eban onek bere puska puska egiñik. Ez zan geratu egintada au sari baga, bada biurtu zanian zaldun au Genovara, deitu eutsan Jaungoikuak bizitza onera ta Marijak sartu eban Erlijiñoeko kai eta leku zorijonekuan. O ze gauza Marijaren gogokua izango litzatekian egingo bale beste ainbeste liburu dongaak daukazanak! Ziur itxaron daike bere abegi on, ta sari uga-rija: bai, dudatzaka jaritxiko leuskijo grazija bere pekatuakaz damututeko, ondu ta salbetako. (Auriem, T. 2. p. 115)

BIJARKO LORIA

Zuen artekoren batek baldin badauka liburu, karta, paper edo irudi nasairen bat, sutara bota ta erre Marijaren borondatia dalako.

Sarri esateko erregu laburra.

Janua caeli, ora pro nobis.

Zeruko atia, erregutu egizu gugaitik.

AMAISEGARREN EGUNA

Zerurako bidiaren gañian.

Bide bi baño ez dagoz zerurako: inozenzijakua, ta penitenzijakua. Inozenzijakorik duaz pekatuak inoz egin ez dabenak. Penitenzijakorik, pekatutik urten eta azkeneraino bizitza onian irauten dabenak. Zer egin neban nik inozenzijako bidiagaz? Esna daiket galdu nebala ezagutu baño lenago: galdu neban jakin bagarik bere balijua, negarrik egin baga bere galtzaija gaitik, eta damuaren apurrik baga, Biarbada beste batzuei bere, emon deutset galduteko oña, ta erakutzi bidia. Ay au negargarrija, ari-mako garbitasuna ain laster, ain gitxigaitik, eta betiko galdutia!

Eta orain bere, egiten ete dot neure pekatuen penitenzijarik? Baña, zer diñot penitenzija, baldin menturaz ondo konfesau bere ezbaditut, eta konfesorik emoniko penitenzija ain txiki ta errazari berari, asko baderi-txat? Borondatezko laztasun eta penitenzijak ez dot, esaterako, inoz egin. Azote, bau, eta nekegarrijen lekuan, billatu ditut atsegiñak, ereguak eta gozotasunak.

Eta, onelan sartu gura dot zeruan? Zein bidetatik uste ete dot nik juatia? Bada bitatik batetik izan biarko dau, edo inozenzijakotik, edo peni-tenzijekotik. Inozenzijekotik ezin jua neite: penitenzijekotik ez dot gura: bada, zelan salbauko naz?

Ea erabagi daigun oraintxe bertatik. Orain artian ez badot peniten-zijarik egin, asi biar dot beriala. Sartu gura dot bide zuzenian; bada orain-dik denporia daukat. Nok daki zenbat denporan biziko nazan? Menturaz guztiz gitxi. Bada denpora gitxi onetan penitenzija egiñaz irabazi baneike zerua: nok nauka lotuta? Zergaitik ez dot egiten?

EJENPLUA

Zeruko bidetik aldunduten da Marijaren serbitzari izatiari itxiten deusana. Arrisku andi onetan jarri zan mutik gazte bat. (Auriem, t. I. p. 23.) Eukirik Marijari deboziño andija bere lelengo urteetan, gero otzitu, ta biziera galdu ta askatu bat artu eban. Gau baten euki zituzan ames gogaikarri batzuk; iratzartu zanian jagi zan oetik, eta asi zan irakurten liburu txar bat, burutaziño areek kenduteko asmuagaz. Jarri zaneko, emo-



ten deutsee atiarri ots ikaragarri bat, zabal zabal egiten da , eta dakuz sartuten dala emakume eskergea, ezain, itxusi ta bildurgarri bat, esku eta oñetan pistija batenak baño erpe luziago ta zorrotzaguak zituzala. Bildurrez ikara gaztia, ezkutau zan bazter baten, eta asi zan Marijari laguntasuna eskatuten. *Alperrik*, esan eban orduan itxura atan eguan Demonioak, *alpe-rrik deituten deitsak Marijari, ik itxi deitsak, eta berak bere itxi deusk iri. Neuria az, ta neure mendian ago ain pekatu, bestia ta bestia egin ditualako:* (izentaurik zeintzuk) *oraintxe eruan biar aut infernuara.* Larriturik guztija, izerdi otza erijon gurputz guztitik gazte oni, baña alanbere al eban legez egin eban bere artian kofradijan egin oi zan lan onai. Amaitu orduko, ikusi eban zelan idigi zan bere gelako leijo edo bentania, eta sarturik andik emakume bat argitasunez beterik eta arpegija estaldurik, bertatik iges egin eban Demonioak. Orduan emakume onek berba egin eutsan gaztiari onelan: *Arrisku andijan egon zara, baña poztu zaite, arnasa artu egizu: zua konfetara, asi egizu barriro zeure errezu ta lan onak, ta artu bizitza barri bat.* Bijaramon goixian goix urten eban etxetik, juan zan arin kofradijan sartuten eban Sazerdotiaren billa: ain joian zurbildurik eze uste eban sazerdotiak zala beste mundukoren bat: baña gazte onen esanak. eta Demonioak gelan itxi eban ats andijak erakutsi eutseen igaro zana. Orduan ezagutu eban gaztiak, ze kaltegarrija zan Marijaren errezu ta deboziñuai itxitia.

BIJARKO LORIA

Begira epeldu ete zarian Marijaren deboziñoian, eta alan balitz, asi zaite barriro gogo bizi ta senduagaz.

Sarri esateko erregu laburra.

Trabe me post te, Sancta Mater.

Ama santia, eruan nagizu zeure ondorik.

AMAZAZPIGARREN EGUNA

Marijaren onerazpen, edo deboziñuaren gañian.

Marijaren deboziñua da edozein-bere gauza alkantzetako guztiz indartsu, sendo eta altsua: zergaitik eze, izanik berau Jaungoikuaren Ama, daukaz beragan bere seme Jesusen eskubide, grazija, ta errukitasunen aberastasun guztijak. Zelan ukatuko deitsa ezer Jesusek bere Amari, Ama ain Santiari, bere bularreko ugatsa emon eutsan Amari, zaindu eta gorde ebanari, janarija emon, gauza onak irakatsi, eta lagundu eutsanari bere ibilleretan, kurutziaeren oñian, eta bi edo sepulturan bertan? Marijak maite dau bere seme Jesus gauza guztijen ganian, eta semiak maite dau bere Ama, gizon ta Aingerubez gañetik.

Marijaganako deboziñua da guztiz gozua, dalako gure Ama. San Estanislao Koskak esan oi eban. *Jaungoikuaren Ama da nire Ama. Jesukristoren Ama da nire Ama. Jesus, eta ni gara Ama bat baten semiak.* Orra emen zegaitik Marijak, ez bakarrik egiten deuskuzan aspertu baga mesediak, baita bere amodijo andijagaz, Ama baten amodijuagaz: Entzutea ditu gure erreguak, erantzuten deusku bijotzera, eta batzuetan ain geure gozotasun, ta samurtasun andijagaz eze, negarretan urtuten gara.

Marijaganako deboziñoia da guztiz samurra, zerren dan pekatarijen Ama: eta izan arren eurak bere seme Jaungoikua kurutzian josi ebanak, maite ditu, eta gozatuten da euren Amatasunagaz. *Ego sum Mater peccatorum.* Zelakua dan bere bijotzak artuten daben poza, baketuten dituzanian seme bi oneek, Jesus eta pekatarija! Bada pekatarija baldin bazara bere, emon ziñaikijo zeure Amari atsegin guztiz andi bat. Bota egizu bere oñetara Jesus kurutzian josi zenduan ultzia: jarri zaite bere esku bedeinkatuetan, eta esan egijozu damu benetakuagaz. *Mater peccatorum, ora pro me.* Emen naukazu neure Ama guztiz maitia, pekatarijen Ama. Erregutu egizu arren nigaitik.

EJENPLUA

Ezin gogortu leite pekatuen, Marijaren serbitzari egijazkorik. Milla zazpireun ta amairugarren urtian jausi zan Franzijan gizon bat pekatu guztiz andi baten eta alako lotsia emoten eutsan konfesetako eze, ezin



ezelan-bere onetara azartu zan: konfesetan zituzan bestiak, baña ez iñoz au. Bere arimako kezka ta aginkadaak barriz minberatuten eutseen bijotza, baña zer eukan onegaz, baldin ezin beban, eta ez beukan nundik urten zingira onetatik? Alako baten otu jakon juatia aldeera atan eguan Marijaren irudi entzute endiko bat gana, usterik, an baketuko zala bere barrua: eta obeto jaristeko, eskiñi eban juatia, ez konfesetako goguagaz, ezpada bere konzienziako atsegiña Marijagandik jaristeko asmuagaz. Jarri zan bidian; baña eldurik Eleixa ataira ezin pausurik egin eban aurrera, eta ez eban iñor ikusten. Egin alak egin zituzan sartuteko; baña alperrik: geratu zan zirkiñik egin ezin ebal, jakin baga nor izan zatekian alan lotuta eukana. Laster ezagutu eban zergatik izango zan, eta geijago luzatu baga, antxe bertan artu eban asmo sendo bat, bere pekatu guztijak konfesetako: orduan beriala sartu zan Eleixan eragozpenaren apurrik baga. Bertatik billatu eban konfessore bat, autortu eutsazan bere bizitzako pekatu guztijak, eta biurtu zan etxera parkaturik eta pozik, Marijak egin eutsan mesede, berak uste eban baño bere andijaguagaz.

BIJARKO LORIA

Artu asmo sendo bat ez itxiteko egunik errosarijo santua astiro, ta deboziñoaz errezaugarik, eta egin alegiña enparauai bere deboziñoa iraasteko.

Sarri esateko erregu laburra.

Mater amabilis, ora pro nobis.

Ama maitegarrija, erregutu egizu gugaitik.

AMAZORTZIGARREN EGUNA

Zelan Jaungoikua daguan leku guztijetan.

Nogaz zagoz orain? Jaungoikuagaz. Nogaz egon oi zara berba egiten dozunian, irakurten diarduzunian, lotan zagozarian, jaten dozunian, edo bidian zabilzanian? Jaungoikuagaz. Eta, pekatu egiten dozunian? Baita orduan bere, zagoz Jaungoikuagaz. Jaungoikua dago zure aurrian, zure ostian, zure goijan. zure beian, zure inguruan, zure barruan, eta zure gorputzeko zati, ta zentzun guztijetan. Dakuzaz zure egitada guztijak, dantzuz zure berba guztijak, dazauz zure gogo, gurari, eta asmo guztijak. Zuri begira dago egunaz, eta gabaz, bakarrik nai lagunakaz zagozarian, edonos, eta leku guztijetan. Eziñ iñoz esan ziñaike: oraintxe pekatu egin neike bildur baga, iñok ikusten ez nabelako; bada Jaungoikua beti daukazu begira.

Ze azartasuna, ze zorakerija zeuretzat ain kaltegarrija, Jaungoikuaren aurrian berak ainbeste gorroto deusuan pekatua egitia! Pekatua egin zeure Salbagillia, zeure Aita, zeure Jauna, eta zeuri epai betikua emongo deusuan auzi-epallia begira daguala! Lotsa izan pekatu egiten edo zeinbere gizonen aurrian, eta lotsarik ez pekatu egiten Jaungoikuaren aurrian! Zelan ez zara ikaratuten, pekatarija? Jaungoikuak daukaz eskribidurik bere bularrarian zure gaiztakerija guztijak, antxe diardu beti irakurten, eta eurak biztuten dabee bere aserria. *Coram facie mea factae sunt*, diño Jaunak. Prestubez dollor onek ofendi nau neure begijen aurrian. Ikaratu zaitte pekatarija.

Agertuten zarianian bere aurrian epai betikua artuteko, ez da izango salatzalla, ez ikusleen biarrik zure pekatuak jakiteko. Neu, ni neu naz, esango dau Jaunak, epaija emongo dodana, ta ikusi nituzana. *Ego judex, et testis*. Ze bildur, ta larritasuna zuria, ikusirik zeugan imiñita bere begi ikaragarrijakm sua ta aserria darijela, eta gomutetia eurak ikusi zituezala zure pekatu ain ezain, ta lotsagarrijak. Zein andija dan Kristinauaren itxutasuna pekatu egitian Demonioaren aurrian, zein izango dan bere salatzallia, Aingeru jaoliaren aurrian, zeñek ezingo daben ordu atan gorde, ta zaindu, eta Jaungoikuaren aurrian, zeñek juzgauko daben erregu, te eskarijai jaramonik egin baga!

EJENPLUA



Gura badituzu egin ondo gauza guztijak, iruditu egizu Jaungoikua beti begira daukazula, egija dan legez, baita Marija bere. Dola deritxon uri baten topau eban kale batetik iraitzian Marijaren kofradijan sartuteko eskubidia eukan sazerdote batek, mutil gazte bat, (Auriem. t. 1. p. 64) eta esan eutsan sartu zedilla kogradijan; gazte onek barriz erantzun eutsan baijetz, ez ainbeste onetarako eukan goguagaitik, ezpada azaijera txarre-kotzat ez igarotearren; bada gaztiak sarri egiten ditue onelako eskintsarijak, baña ez oi ditue beti bete, eta kunplidu, Marijak bere esku, ta lagun-tasuna emoten ezpadeutsee. Zorijonian alan jazo zan gure gazte onegaz. Agertu jakon Marija, ta esan eutsan: *Egişu esan deusubena, bada neuk gura dot, eta ez zaitut nik inoz itxiko*. Ikusmen ain dontsu, ta eskintsari ain andi-jak mirariz ta pozez bete ebeen, eta beriala juan zan kogradijan sartutera. Bildur ziran sartuten jakinik lengo bizitza galdua, ta zein buru ariña zan. Baña azkenik ikusirik bere iraupena, sartu ebeen, ta andik aurrera izan zan Marijaren serbitzari egijazko ta krestiñau guztiz on bat, leen askori pekaturoko bidia emon eutsen legez, orain guza onetarako emoten eutseela. Ez da aztutekua Marijaren eskiñi au: *Ez zaitut inoz itxiko*: bijotz guztijak beronegana ekarri, ta bere serbitzari guztijak asmo santuetan sendatuteko duiñekua. Oneen antzeko berba batzuk esan eutsazan San Juan de Diosi. Zan au Marijaren serbitzari egijazkua, ta ill agiñian eguala uste eban agertuko jakola, baña, ez zanian agiri, estutu zan, baita bere aserratu bere artian. Alako baten agertu jakon, eta agirika egin eutsan bere itxaropen laburra gaitik, zirautsazala Marijaren serbitzari guztijak poztuteko berba samur oneek: *Juan, ez ditut nik bakarrik itxiten neure serbitzarriak erijotzako orduan*: andik laster ill zan, ta bere arimiak igon eban zeruetara, an bere Ama ongiLiari eskerrak emotera.

BIJARKO LORIA

Lanen bat asten dozunian, eta batez bere Demonioak, edo aragijak esesten, seutsuenian, esan egizu zeure artian: *Jaungoikuak nakus*.

Sarri esateko erregu laburra.

Illos tuos misericordes oculos ad nos converte.

Biurtu egizuz gudanantz zure begi errukistu orreek.

EMERETZIGARREN EGUNA

Ugazaba biren otsein ezin izatiaren gañian.

Erantzun egidazu zuzen ta toles бага kristinaua noren serbitzari izan gura dozu? Jaungoikuaren, ala Diabruaren? Begiratu egizu ondo, bada bijen serbitzari izan, eta bijeen gogoko izatia, ezin leitekian gauzia da. Betetia egin baten Jesukristoren aginduak, eta bestian Luziferrenak: Domeka goixian errezetan, meza entzuten, eta arratsaldian dantza nastutetan... gaur konfesetan, ta laster pekatuetan; an da Satanasen adiskide izatia, ta Jaungoikuari burla egitia.

Erabagiten badozu Jaungoikuaren serbitzari izatia, artuko dizun nekia izango da guztiz laburra, eta sarija betikua. Penitentzia berrogei, irurogei, edo geijenez larogei urtekua: atsegiña ta gloriya betikua, amaibagia. Onezaz ostian jakin biar sozu Jaungoikua dan lako ugazaba ain on batekm ez deusula itxiko lagundu бага, sendatu бага, ta pozkerijaak egin бага erbeste onetan bizi zarian artian bere. Eta Jaungoikuaren serbitzari izatiagaitik eruan biar badozu kurutzia, gozatu ta poztu zaitte; bada au da sariarik oneena; eta ez da izango, Jesusek, errubagia izanik, zugaitik eruan ebana baxen astuna.

Baña jarten bazara Demonioaren otsein menpeko, ta serbitzari, atsegiñak izango dira guztiz laburrak, eta oneek bere mingoztasunez betiak, eta penaa betikuak. Isabel Inglaterrako Erregiña agerturik ill ezkerro, ebillen diadarrez Tamesis deritxon ibai inguruan ziñuala: *Erreiñuko agintaritzia berrogei urtekua: infernua betikua*. Onezaz gañera ez da ziurra, Demonioak mundu onetan bertan bere emoten deutseela bere serbitzarijai gozaro bizitzeko biar dabeen guztija, Zeuk zeugan ikusi dozu au ondo egijazturi, eta dakutsu oraindiño. Eta azkenik Demonioa da ugazaba bat guztiz gorroto andija deusuna.

Zer itxaron daikezu beragandik?

EJENPLUA

Baldin zorigaiztuan Demonioak bere mendian bazaukaz, zuzendu zaitte Marijagana, eta berak aterako zaitu aren mende, ta erpeetatik. Mutil gazte batek alkantzau nai eukian gauza bat, eta ikusirik ezin bete ebal



bere gurarija, emoan eutsan Demonioari bere arimia, loturik onetarako bere izen, ta lonbria paper baten imiñijagaz, baldin jaristen beutsan gura ebana. Baña laster damaturik jua zan konfesetara bere pekatua Marijaren Eleixa batera, konfesorik aginduten eutsan edozein-bere penitenzija, danik andijena izan arren bere kunpletako gogo ta asmuagaz. Agindu eutsan konfesorik, absoluziñoia artu baño lenago. egijala baru, imiñi zili-jo bat, eta azotau zeitiala itu egunian, Marijari laguntasuna eskatuten eutsala, eta esan eutsan, iru egun areetan beragaitik mezia eskiñiko ebala. Oneek egiñik, agindu eutsan konfesorik sartu zedilla Marijaren Kapillan, eta egizala erregu barriak. Aspertu baga negar egiten eban, erregututen eutsala Marijari, arren biurtu egijola. Demonioari emon eutsan papera, onetarako esaten eutsazala sarritan, Eleixa Santiaren berba oneek: *Mons-tra te esse Matrem. Donzella errukiorra: erakutsi egizu arren orain zariala nire Ama ona, ez banaz bere ni duin zure seme izateko, ezpada Demoniaren menpeua:* onetan ziarduala dakus bere eskuetan papera. Orduan asi zan negarrez ta diadarrez, ez onezkero pena ta naibagez, ezpada atsegin ta pozez, eta gelsitu baga ziarduan Marijari eskerrak emoten. Jaun zan arin konfesoriaga-na, emon eutsan onek absoluziñoia, Jaungoikuak parkatu izango eutsan uste, ta itxaripen senduagaz.

BIJARKO LORIA

Mun egin iru bidar Marijaren irudi bati amodijao ta samurtasunagaz, esaten deutzazula bakotxian: *Ama neuria: zure serbitzari egijazkua izan gura dot: egizu arren ez dagijala nigan zer ikusirik euki Demonioak.*

Sarri esateko erregu laburra.

¡O Domina! Serbus tuus sum ego.

O Andria: zure serbitzari naz ni.

OGEIGARREN EGUNA

Jaungoikuagana biurtutia atzeratuten dabenen gañian.

Esan egidazu pekatarija badaukazu or zeure barruan onduteko gurari-rik? Gura dozu egijaz, ta benetan Jaungoikuagana biurtu? Ezin ukatu ziñaik. Baña noz izango da ori? Gaur? Ain laster ez. Orain zeregin asko daukadaz, eskuartian darabilt lan ta eginkizun bat; mundukuen zeresan, ta esamesen bildur naz, ezin goitu dot ekandu donga au, griña gaizto onek beragana narua, eragozpen asko daukadaz, gero biurtuko naz. Noz? Ain, edo beste eragozpen goitu orduan, neure griña gaiztuak bakian itxiten deustenian, zaartu naitianian, edo datorren urtian maijatzeko looraak egiten badira. Ah! Zenbat denpora ete dan auxe berau diñozula, eta orain artian ez dozu ezer egin!

Zuk luzatuten dozu, eta itxi geroko. Eta badakizu Jaungoikuak itxaron gurako badeutsu? Eta badezpada onetan euki gurako dozu zeure arimako salbaziñoia? —Jaungoikuak orain artian bere itxaron deust. Bada orrexegaitik berorregaitik bildur izan biar dozu, ez deutzula onezkero geijago itxarongo; aspertu, ta gogaiturik, ainbeste esker txar, ainbeste eskint-sari alper, eta bere errukijari egiten deutzazun burliagaz. —Baña ain da ona ze...!— Denporiak askuan izan da ona zugaz: nok daki eldu eta dan bere aserre, ta gogortasuna zuri erakusteko denporia? Onezaz gañera, zugaz ona dalako, jarraituko deutzazu pekatu egitiari ta berari iraun, ta naibagiak emotiari? Au izango litzate eskergabetasunik andijena ta pres-tubezkerijarik ikaragarrijena.

Infernuan dagozan kristinaurik geijen geijenak itxi ebeen geroko, zuk legez, Jaungoikuagana biurtutia, eta jatzi ziran leku zorigaiztoko atara eureen gurari onekaz. Ez dago iñor ain erorik zein da esango daben. *Ez dot ondu gura:* baña gitxi dira diñuenak bijotzetik: *oraintxe berpertatik ondu gura dot.* Itxiten dabee egun batetik besterako; aste batetik besterako, eldu-ten jake erijotzia, ta orduan bere luzatuten dabee, zerren ez dabee uste illgo dirala gatx atatik, egun atan, ordu atan. Begira bada, egingo ete dan, bizitza guztijan egin ez dan, azkenengo une areetan, zeintzuetan Jaungoi-kuak burli egiten deutseen berari burli egin deutseenai. Begira ondo, bada asko juantzun gauzia da. Oraintxe onduten ez bazara, bildur izateko da, ez zariala iñoz onduko.



EJENPLUA

Baldin adiuntzaz, eta denporaz onduten diranak bere, estu eta larri ibilliko badira erijotzako orduan; zer izango da arako itxiten dabenakaz ordu ikaragarri atarako Jaungoikuagana biurtutia? Bizi zan Jakobo eritxon gizon bat guztiz itxija, ta ardura bagia arimako gauzetan. (Auriem.t. 2. p. 217.) Eta dongeen dana, beragaz zituzan, diruaren gurari larregijari jarraitu oi deutseen beste ekandu txar, ta oekatu mueta guztijak bere. Gauza on bat eukan, eta au zan Marijagaz nosbait gomitetia, errezetan eutsala egunoro errosarijuan, ta egin beste erregu batzuk. Bein baten sartu zan errezetara bere erreguleku, edo oratorijora, eta entzun eban berba bat zirautsana: *Jakobo, zuk egunoro artuten deutseezuzan ezkerro kontuak ain ziatz zeure mendejuai, emon egiguzuz orain zeuriak niri, ta nire semiari.* Ez eutseen jaramon andirik egin berba oneei, ekandu dongetan sarturik dagozanak geijenaz oi dabeen legez. Bigarrenez deitu eutsan Ama errukiorrak. Orduan konturatu zan, eta ezagaturik oker joiala, aztertu eban bere konzienzia; ta ikusirik zor andijak eutsazala Jaungoikuari, ain modutan ondu zan eze, len pekatu guztiz andijak ezereztat eukazanak, begiratuten eban ardura andijagaz gauzarik txikijenetan, ezetan bere utsik egin ez egijan bildurrez, beti goguan ebal arako Jaungoikuaren zemaia: *Ego justitias judicabo. Nik juzganko ditut gauza onak eurak.* Onelan bizi zan azkenengo ordura artian, eta ija ija kintuak emon biar zituzanian, ikusi zituzan zelan agertu ziran Jaungoikuaren aurrian Demonio asko, eta zelan ziarduen bere arimiaren eski alegin andijagaz, bere bizitza guztijan egin zituzan pekatu asko, ta andijak gaitik. Geixo errukarrija estu eta larri aurkituten zan, ikusirik ain arrisku andijan bere salbaziñoia. Onetan agertu jako errukijaren Ama Marija, eta agindu eutsan San Miguel Aingeruari, imiñi egizala pixuaren alde batetik Jakobok bere izen, ta ondran egin zituzan gauza on guztijak, eta bestetik bere bizitza guztiko pekatuak: baña oneek arindu, ta parkaturik egozan legez, damu egijazko, ta prestaera onagaz konfesauta eukazalako, beeratu zan pixua egitada onak egozan alderuntz: orduan au ikusirik, iges ebeen Demonioak, eta Marijak eruan eban beragaz zerura Jakoboren arimia.

BIJARKO LORIA

Bazagoz pekatu mortalian, zuaz beriala konfesetara, eta baderitxatzu Jaungoikuaren grazijan zagozala, begiratu egizu ze gauzak geijen eragozten deusun zeruko bidian aurreraru, ta Jaungoikuari zarian guztijori osoro emotia, eta beriala artu egizuz neurrijak goituteko.

Sarri esateko erregu laburra.

Jesus, Jose, ta Marija, zuei emoten deutsudaz neure bijotz, ta arimia.



OGETABATGARREN EGUNA

Konfesinoko Sakramentu santuaren ganian.

Gaixotuten da zure gorputza, eta beriala deituten dutsazu osagillari. Pekatuagaz gaixotuten da zure arimia: eta zergaitik ez zara osatuten laster ta ondo konfesauaz? Zetan dago desbardintasun sinisgatx au? Geijago maitetutian gorputzeko osasuna, arimakua baño. Eta illten bazara pekatuan konfesau bagarik? Ay zure zorigaiztokua! Beti betiko galdua izango zara. Bitartian, zenbat eta denpora geijago zagozan konfesau bagarik, ainbat eta barrurago sartuten ditu sustraijak pekatuak zure ariman, arik eta ekandua arturik, berezko legez egin, ta elkartu ditezen artuan, Geijen geijenez, daukazuz gogo ta asmuak konfesetako Paskuetan, edo jai andiren baten. Beraz salbauko bazara, ill biarko dozu Paskuetan, edo jai andiren baten.

Zergaitik konfesauko naz ain sarri, ez oi badot euki zer konfesau bere? Ah! Ez egizu orrelakorik esan. Ez dozuz egunoro egiten pekatu txikijak? Ez dozu inoz pekatu andirik egin? Ez daukazu zer garbiturik Purgatorijoko suagaz? Bada sarri konfesauaz kitau ziñazkez zeure zorrak, edo beinik bein pagau zati andi bat. Ez dozu gura ikusi zaijezan zeure arpegijan orban, ta loi bategaz, ezpada beriala garbituten zara, eta agertuten zara zeruko zorijonekuen aurrian zeure arimia ezaintasun, ta loikerijaz beterik dozula?

Menturaz esango dozu: konfesetan izan naz sarri orain artian, baño ni beti naz lena. Baña konfesetan izan zara ondo? Eta baldin esaminiagaz, damuagaz, onduteko asmuagaz, ta konfesinoiagaz oraindik pekatuan jausten bazara, zer izango da oneek bagarik? Ay! Zein ondo konfesauko lotzatekian infernuan daguan bat, emongo baleutsa Jaungoikuak, zuri emoten deusun eria, ta grazija. Biar bada etorriko jatzu zuri bere denporia, zeñetan gurako dozun egin konfesiño on bat, eta ezingo dozu.

EJENPLUA

Gogoratuagaz beste бага, Jaungoikuak nai dabenian ta erraz kastigau leikezala zure pekatuak, uste dot ez dozula luzatuko konfesiñoeko Sakramentu Santuagaz zeure arimia garbitutia. Milla seireun ta amaika

garren urtian (Auriem. t. 1. p. 58) bizi zan Mejikon mutik gazte bat Marijaren kofradijan sartuta eguana: bein baten lagun donga baten asmoz joian pekatu andi bat egitera. Geratu ziran alkarregaz adituta nun, zelan, ta ze denporatan egingo ebeen gaiztakerija au; jarririk onetarako bidian bere lagunakaz, Marijak eukazan legez imiñirik bere begijak gazte onegan, librau eban mesede andi onen bitartez. Urten deutsa bidian gizon lotsa ta itzal andiko batek, zeñek izan biar eban bere Aingeru jaoliak, eta urreraturik beragana, bestiak ikusten ez ebeela esan eutsan: *Eta Marijaren Kofra-kijakua izanik, oa gaiztakerija ori egitera?* Eta onegaz batera emon eutsan bularrian ain ots andija ze, ezarri eban lurrera, ta geratu zan ezaguera бага. Duaz beragana lagunak, jasoten dabee, eta biurtuten da bere konortera. Itanduten eutseen, ia zer daben, edo zer igaro jakon; baño berak ez eutsen besterik erantzuten ezpada, eruan egijela konfesore bat gana. Bestiak onetarako gogorik ez beukeen bere, eureen adiskidiaren borondatia egitia gaitik, euran eben Eleixa batera, billatu eben konfesore bat, eta itxi eben an. Esan eutsan konfesoriarri zer igaro jakon, konfesau zan damu ta negar andijakaz, eta andik aurrera jarraitu eutsan bizitza guztiz on bati. Zorijoneko eskua, ots bategaz bijotza samurtu, pekatiko bidetik aldendu, eta zerurakuan imiñi ebana.

BIJARKO LORIA

Begira zelako azterren, damu, ta ez geijago pekatuak egiteko asmo senduagaz egin dituzun orainarteko konfesinoiak: begira pekatuak lotsaz konfesau бага ete daukazun: eta utsegiterik aurkituten badozu, osotu ta zuzendu beriala.

Sarri esateko erregu laburra.

Mater Divinae gratiae, ora pro me.

Jaungoikuaren grazijaren Ama, erregutu egizu nigaitik.



OGEITABIGARREN EGUNA

Komuniñoeko Sakramentu Santuaren ganian.

Oh zenbat honretan naben, eta ze eskintsarijak egiten deustazan Jesusek Komuniñoeko Sakramentu santuan! An egiten da nira adiskide, nire arimiaren lagun, eta esoso maite, eta dator nira ostatura: emoten deust bere aragija jaten, bere odola edaten, eta berberaganduten nau guztiz ta osaro. Nire bularra da orduan sagrauago, Eleixaak, Altxaraak, kalizaak, kopoiak, eta patenaak baño; eta komulgetan nazanian nire arimiari deitu leikijo zerua, antxe bizi dalako gloriako Erregia.

Baña nik, ay zenbat deshondretan dodan artuten dodan bakotxian! Izanik nire arimiaren laguna, artuten dot oztasunik andijenagaz, edo itxiten deustat beriala duiñeko eskerrak emon baga; edo biar bada ez dot billatu bere gura. Dirudi ezin egin neikijola irauin ta desprezijo andijagorik. Baña menturaz eldu da geijagora nire gaiztakerija, artuten dodala arima loituagaz pekatu eralla ta mortalian, eta sartuten dodala infernuko pistija donga, ta sugeentzat ondo egoki ta adjunta dan bizilekuan.

Baldin nosbait ondo prestetan banaz ze onera. doe, mesede ta grazija andi, ta berarizkuak egiten deustazan Jesusek Sakramentu Santu onetan! Grazija, griña dongaal azpiratuteko; grazija, munduaren labankerija, ta arriskuak ezagututeko; eta grazija, eureetatik iges egiteko. Oh! bizitzako ogija, martirijak sendatu, eta Donzellak santutu dituzana!

Ondo erua edo naz, ez banaz bañijetan grazija ain ugarijakaz. Eta egijaz, orain ondo begiratuten dodanian, dazaut, zein ero ta zentzun bagia izan nazar orain artian. Nundik jatort izatia ain erkin ta argala esetsi eta tentazinoietan, eta ez pausu bat aurreratutia zeruko bidian? Ez komulgetatik sarijago, ta prestaera obakaz, eta biar dan lako modu ta itzalagaz Eleixetan ez egotetik. Egija da ez nazala Jaungoikua artuteko duin; baña zergaitik ez naz duin egiten bizitza barri, garbi ta guztiz on bategaz?

EJENPLUA

Marijak dauka ardura andija, bere serbitzarijak ill ez deitezan Eleixa-ko Sakramentu santuak artu bagarik. Bizi zan Lobainan milla seireun eta ogeta bat garren urtian Eleisgizon sazerdote bat, Marijaren serbitzari egi-

jazkua. Geixotu zan: osagilla edo Medikuak ez eben deitu eutsan bere arreba bati, eta esan eutsan, jua zedilla kura Jauna gana, eta esan egijola ekarri egijozala Sakramentu Santuak. Ez eben nai etxeuak, ustez, ez egualako premiñarik. Baña geixuak esan eutseen: *Zuaŕee laŕter: ʒuek uŕte doʒue ez naʒala oraindik illgo; baña ur urrian daukat erijotʒia: ez daukat ordu biko bizitʒarik.* Ikaratu ziran etxeuak, baña ez eben alanbere onelakorik uŕte, eta atzera egozan beti Eleixakuen eske juateko. Ikusirik au sazerdote onak argiro esan eutsen: *Zuaŕe arin arin, bada emendik puskua batera nua illtera: ager-tu jat Marija ta esan deust prestaen naitiala ʒerura juateko, baña lenago komulgau nadilla.* Beriala jua zan bere arrebia Eleixakuak ekarteko adierazotera: artu zituzan prestaera guztiz onakaz, eta ill zan Marijak esan eutsan legez ordu bi barru, azkenengo arnasaraño ezaguera osua ebala.

BIJARKO LORIA

Artu egizu asmo sendo bat sarri komulgetako aurrerantzian, eta onezaz gañera gurarizko konuniño, edo Espiritualak egunoro egiteko.

Sarri esateko erreġu laburra.

Ave verum corpus natum ex Maria Virgine.

Jaungoikuak gorde zaizala, Marija Ama Donzella gandik jaijotako gorputz egijazkua.



OGEITAIRUGARREN EGUNA

Jaungoikuak egiten deuskuzan dei, ta bialduten deuskuzan argitasuneen gañian.

Jaungoikuak deituten deitsu era ta modu askotara bere argitasunagaz: batzauetan fede santuko egija, ta irakatzijen ezauera argijen ots gogorraz; beste batzuetan, adiskide baten berba onakaz; edo konfesoriarren agindu, ta esanakaz; orain gatx, izurri, ta naibagiakaz, gero semolarijen bitartez, baita bere liburu onak irakurrijagaz. Onduten dan pekatari batek dirudi dirautsula. *Ondu zaiite.* Erijotza uste bagako batek: *Konfesau zaiite.* Zeure bijotzeko kezka, ta artegatasunak: *Itxi ekandu donga orri.* Eta baldin iñoz, zeugan ezagutu badozu, ona izatiak dakarren atsegiña, esan izango dozu zeure artian: *Oh, ze gauza gozua dan Jaunaren serbitzari izatia!*

Jaungoikuak asko egiten deusku deitutiagaz: guri jaoku laster erantzun, ta bere esanak egitia. Jaungoikuaren grazija da egijaz, argija, illuntasunak kenduteko; iruntza, azijari erne eragiteko; osagillia, sendatuteko: baña bakarrik erne eragiten deuska grazijaren azijari, iruntz au artuteko bijotzak idigiten deutsezana; eta bakarrik argituten ditu arako arima, euren guraz begijak itxiten ez dituezanak, ikusteko zuzentasuneko eguzkija. Grazijak gura gaitu salbau, ta alegiña egiten dau onetarako; baña ez dau salbetan jarkiten jakonik: gura gaitu santu egin, baña ez indarrez ta noraezian. Oneek alan izanik zer esango dogu arako iges egiten dabenak gaitik Sermolarijagandik, konfesoriagandik, liburu onagandik, eurak agiraka egin, mindu, ta zirikatuten dituezalako? Au ez bakarrik da Jaunaren esanak ez egitia, ezpada jarkitia Espiritu Santuari.

Jaungoikuak deituten deusku ay gure errukarrijak erantzuten ez bedautsegu bere deija! Entzun ebaneko San Mateok Jesukristoren deija, jagirik jarraitu eutsan, eta erriko dirubatzalla zana, geratu zan Apostolu eginik. San Pedro, bere Irakasla maitiaren begirakune bakar bategaz, asi zan negar malko samurrak botaten, egin eban penitenzija, eta izan zan santu andija.

EJENPLUA

Zorijonekua, Jaungoikuaren deijari laster erantzuten deusana! Ondo egijazturik ikusi eban eu beragaz Bolonijan, Marijaren kofradijako

batek. Juan zan gois baten konfesoría gana, ta esan eutsan, zelako gurari bizijak eukazan bere arimia garbitu, ta bere artu emon guztijak zuzenduteko, ta erregutu eutsan, lagundu egijola, zerren: *nok daki, Jauna, uste бага bat batera ezetarako asti бага illgo ete nazan?* Bere berba samur, ta negarrak adierazoten eben, zala egijazkua bere gurarija. Emon eutsazan sazerdotiak erakutsi onak, zuzendu eban arimako gauzetan, ta azkenik agindu eutsan sarri konfesau zedilla, gitxijenez jai guztijetan. Erabagi eban alan egitia guztija, eta gogo sendo bategaz asi eban bere bizitza barrija. Ez ziran emendik igaro ill oso bi, etorrela bere etxera geixotegi, edo Hospitale batetik, nun egon zan geixuai lagunduten, eta bidazti, erromes, edo peregrinu batzuei biar eban diru, ta beste gauzzak emoten, jua zan salaruntz jan ostian, eta ate atetan emon eutsan larrijak: jarri zan: eta esanik Jesus ta Marijaren, izen gozuak, geratu zan illik. Ez bada gortu Jaunaren deijetara.

BIJARKO LORIA

Oraintxe bertan illteko bazengoz zek geijen estutuko zindukez? Bada orduan egitia gurako zendukiana, egizu oraintxe, eskaturik Marijari laguntasuna.

Sarri esateko erregu laburra.

Doce me, Domina, facere voluntaten tuam.

Erakutsi egidazu, Andria, egiten zure borondatia.



OGETALAU GARREN EGUNA

Pekatu arin, txiki, edo benialen gañian.

Pekatu arin, edo beniala gatz txiki bat da; au laster esaten da; baña ez da inoiz gauza txikija, Jaungoikuak gura ez daben gauzia egitia. Ain txarto erantzun biar jako Jaungoiko ain andi bati, Aita ain on bati, lagun edo esposo ain samur bati, salbagilla ain errukior bati? Zer esango zenduke zeru guztija beera jausiko balitz? Bada askogaz gatz andijagua da pekatu benial bakar bat; dalako Jaungoikuak eragotzija. Pekatu egitia uste baga legez, eta ezaguera oso bagarik txarto da; baña jakin pekatu ariña dala arako guzurra, arako agindu dua ez beteria, ta alanbere egitia, da esango balitz legez: *Maitiago dot pekatua, Jaungoikua baño*. Ez balego infernuri, erraztasun berberagaz egingo zenduke edozein-bere pekatu; zerren agiri da, Jaungoikuari ez deutzazula jaramonik egiten.

Baña, aurrerantzian orrelan bizi bazara, gois edo berandu jausiko zara pekatu andijetan: Zenbat denporan uste dozu bizi gurako dabela Jaungoikuak, ain gitxi maiten daben arima bategaz? Eta ez dozu ezagutu ten zure indarrak egunik egunera gitxituaz duazala; erijotziak ta infernuak ez zaitueka onezkero ainbeste bildurtuten, eta Jaungoikua zure bijotzetik aldenduaz doiala? Sarritan egon oi zara pekatu illgilla, eralla, ta andijaren ertz, eta egal egalian; eta ezin ezagutu daikezu ertz ta egal au igaro badozu bere Nok daki pekatu andiren bat onezkero egin badozu? Salbau gura zenduke, ta zabiltz beti estropezuko lekuetan erraz jausi, ta amildu ziñaittekezan lekuen inguru, ta ur urrian.

EJENPLUA

Zenbat utsegitek, txikijak begitandu leitekezanak, ez ondo begiratu-tia gaitik, edo umiak egiten dituezalako, alanbere Marijari asko aserratu eragiten deutseen! Dovai deritxon uri bateko Eleixako orma baten kanpo aldetik, eguan zurezko Marijaren irudi bat. (Auriem. t. 1. p. 44.) Bere aurrian asi ziran jokuak mutik txiki batzuk, aurretik igaroten ziran batzuk errezetan egozala. Erakutsi gura izan eban Marijak, zenbat aserratu eragiten eutsan bere aurrian lotsa, ta itzal gitxigaz egotiak, eta jasorik bere besua zematu zituzan jokuan ziarduenak. Ikusirik onetariko batzuk, esan

eutseen bestiai: Ez dakutsue zelan Marijak jaso daben besua, zematuten gautuzala, bere aurrian jokuan diardugulako? Ikaraturik guztijak mirari onegaz, iges egin eben euren etxeetara, itxirik bertan beera guztija: esan eutseen gurasuai igaroten zana, eta ordu lauren baño lenago batu zan jenedi andi bat mirari au ikustera. Baketuteko Marijaren aserria, baturik erri guztija zortzi egunian alde erreskan juan zan beragaz erregu, ta errezuak egitera, parka eslatuten eutsela, mutill txiki areen pekatu gaitik, bere aurrian lotsa txarragaz egotian, eta Marijak erakusteko igaro jakola bere aserria, egin zituzan mirari asko.

BIJARKO LORIA

Egon beti modu onagaz Eleixan, ez berbetan, barriz ,albietara ta atzera begira, ezpada begijak beeruntz dituzula.

Sari esateko erregu laburra.

Munda me ab omni iniquitate, Sancta Dei Genitrix.

Santa Marija Jaungoikuaren Ama: garbitu nagizu pekatu guztijetatik.

EJENPLUA

OGETABOSTGARREN EGUNA

Garbileku edo Purgatorijoaren gañian.

Zer egiten da purgatorijuan? Erre, ta erre, Jaungoikuaren aserriak ixioturik daukan su andi baten. Ametan da Jaungoikua, ta Jaungoikuak kastigetan dan. Jaungoikua ikusi gura, ta ezin ikusi, zerura juateko ordue-
ren zain egon, ta jakin ez noz elduko dan. Igaroten dira, munduan asmau al leitekezan pena ta oñazak baño azkozaz andijaguak, indarrez, irabazi baga, sari baga. Egija ikaragarrija! Presondegi itzaltzu baten gomutiak ikara eragiten dau. Geijen geijenok juan biarko dogu artuten bildurrik, ez ardurarik, ez deusagu jaramonik egiten.

Zergaitik juaten da Purgatorijora? Monja edo Erljiosa bat juan zan, berba batzuk ixitxurik koruan esatia gaitik. Pralle edo Erljioso bat, Glorija errezetan ziardunian burua ez makurtutia gaitik: neskatiilla guztiz on, ta garbi bat, barijaku baten ardura larregigaz arpegija garbitu ebalako. San Pelegrin, eta San Pascasio pekatu guztiz txikijak gaitik: San Valerio, bere loba bati geijegi gura eutsalako: Sermolari edo Predikadore Santu bat, bere berbaldi, ta eskribiu zituzan gauzai eutsen eraaspen andijegijagaitik; eta alan beste asko. (Catan. buen. muert. p. 2. disc. 26.) Zer izango da zugaz, ainbeste aserrekuntza, guzur, Eleixako albueta begiratute, eta modu txar, berba alper, apaindurija ero, edo karidaderik eza gaitik? Eta oraindik bere ez daukazu onduteko gogorik?

Zenbat denporan egoten da Purgatorijuan? Zenbat denporan egongo ete zara zu? Daigun, pekatu benial bakotxagaitik egun batian egongo zariala Purgatorikuan, eta egun bakotxian ogeta amar egiten dituzula. Onelan egun bakotxari jaokaz ogeta amar egun: urte bagotxari ogeta amar urte: berrogeta amar turteri, milla ta bosteun: irurogeiri, milla ta zortzireun. Jaungoiko Zerukua! Ay au zor ikaragarrija! Iraatzi egijezu pekatu arin ta txikijai, pekatu andiren bat, parkatua bai, baña bere zorra pagau bagia. Zenbat gizaldi geijagoko Purgatorijuak itxaroten deusun! Zuk kitau, ta pagau ziñaikez orain erraz baruakaz, laztasunakaz, mezaak atera ta entzunaz, kurutzia bisitauagaz, induljenzijaak irabazijakaz... Eta alan-
bere, bizi zara ain ardura gitxigaz?

Marijak dauka ardura andija gordetako bere serbitzarijak, ez bakarrik infernuko penetatik, baita garbileki, edo Purgatorijokuetatik bere. Raynerio Cistergo Monje bat bizi zan bildurrez ikara ez ekijalako parkatu beutsazan Jaungoikuak bere lengo pekatuak, ta euren zorra, eta erregututen eutsan guztiz sarri Marijari, arren errukitu zedilla bere arimiagaz. Bein baten Jaungoikuagaz berbetan ziarduala, geratu zan konort bagarik, eta ikusi eban arimako begijakaz, zelan Marijak erregututen eutsan beregaitik Jesusi, eskatuten eutsala, eruan egijal zuzen zerura, Purgatorijuan sartu bagarik; bada damututa eguala bere lengo pekatuakaz, eta egin ebalala eurai jaoken penitenzija. Eta erantzun eutsan Jesusek: *Ama neuria: guztija itxiten dot zure eskuetan.* Nok adierazo Raynerioen poza, erantzueru au entzun ebanian? Gitxi badira bere purgatorijotik igaro baga zeruan sartuten diranak zeren bildur izan zatekian, baldin bera beguan bere Ama laztan Marijaren aukera, ta eskuetan? Alanbere ez zan nagitu, ez otzitu arimako lanetan, ezpada jarraitu eutsan bizi, ta sendaro zeruko bidiari, ta egitada onekaz pekatuen zorra pagau, ta arimia aberastutiari. Orra zelako mese-
diak egiten deutsezan Marijak bere serbitzarijai.

BIJARKO LORIA

Errezau egizuz iru bidar Aita guria, Abe Marija, ta glorija, Purgatorijuan dagozan arimen artian, Marijari deboziñorik geijen euki eutsana gaitik.

Sarri esateko erregu laburra.

Jesum benedictum fructum ventris tui, nobis post hoc exilium ostende.

Erbeste onen ondoren, erakutsi egiguzu Jesus, zure sabeleko frutu bedeinkatua.



OGETASEIGARREN EGUNA

Ume Jesusen gomutia.

Begira ondo zein ezeuki, ta pobria auikituten dan ume Jaungoiko au. Zeren premiñia dauka? Gauza guztijena. Ez dauka oerik; eta alan etzan biar dau lasto batzuen gañian. Ez dauka zek berotu, eta orregaitik abere bik eureen arnasiagaz berotuten dabee. Ez dauka zer jantzi; eta Josek estaldu biar dau bere jakiagaz, *txartasagaz balentziñaniagaz*. Jesus ain premiñaz beterik, eta ni ondasu nenbilla, ain gar andijagaz!

Begira bere nekeetara! Ze gorputztxu samurra! Zelako otza eukiko ez ete eban neguaren bijotzian! Zenbat naibage ez eta zituzan igaro biar-ko lastotsa atan, bere guraso, ta Aasaben etxeetan iñok artu gura ez ebal! E'Ta alanbere, ez dau murtik ateraten, ez jako ay bat entzuten, ez zotin bat ikusten. Jesus ain penaz betia, ta ain atsegin, ta eregu zalia!

Begira azkenik bere humiltasunari zelan jaijoten da Jesus? Gau illun baten erdijaren ixilltasunian, eta lekurik ezezagunenian. Zeintzuk dira bere serbitzarijak? Iñor bere ez; eta alam bere Aitak eta Amak zaindu biar dabee. Nortzuei agertuten jakee? Bakar bakarrik artzain ezer ez dakijen batzuei. Zeren irudi ta itxuria egiten dau munduan? Eskeko, Jaungoikua- ren deiko, aterik ate dabillen batena, ezin aukitu dabela edola-bere mese- dez, gau bateko ostatua. Jesus ain humilla, ni barriz arro ta andikerija zalia!

Erdu, Kristinaua, Jesusen kumara, juzgaua izateko: Begiratu egijozu: eskepe uts arek, lasto arek kondenetan ditue zure etxe eder, bitxi, ta apaindurijak.

EJENPLUA

Zazpi urteko neskatillatxu batek entzunik zein eder ta sotilla dan Jesus Marija gandik sortu ta jaijotako umia, eukazan gurari guztiz bizi batzuj bera ikusteko. Eta umeen zintzotasunagaz, eskatuten eutsan Mari- jari egijola mesede. bein bakarrik erakustia: baña andija zan legez eskabi- dia, ez zan izan ain laster entzuna. Zazpi urtian jarraitu eutsan eskabide au egitia, biztuten ebala geruago ta geijago Jesusen amodijua, zeñek eutsan zauriturik bijotza. Amodiozko zaurijak ez dira egiten, San Juan de

la Cruzek ziñuan legez, ezpada maite dana aurrian daguanian: joten eban neskatillatxu onek Marijaren atia, bere bitartez ikusteko Jesus, bere ari- miak ain maite ta gura ebana. Gabon gau bat izan zan beretzat ondo don- tsu ta zorijonekua; bada gurari oneetan ixioturik eguala Eleixan erre- gu edo oraziñoian, ikusi eban Marija bere ume Jesus besartian ebala, eta entzun eban Marija bere ume Jesus besartian ebala, eta entzun eban zelan zirautsan: *Eutsi, ene alabia, ta gozatu zaitte beragaz*. Artu eban neskatillak, eta besartian eukala, itandu eutsan ume Jesusek, maite beban. Erantzun eutsan: *Bai, asko maite zaitut: Zenbat?* esan eutsan Jesusek. *Neu baño geijago*, erantzun eutsan neskatillak. *Egijaz maite nozu?* Esan eban ostera ume Jesusek: *maite zaitudaz neure arimia baño geijago*. Barrero erantzun eutsan Jesusek: *Zenbat maite nozu?* Orduan erantzun eutsan neskatillak: *Nik ez dakit zer esan daikezudan: berba egin dagijala nire bijotzak*. Ainbeste emodijo- ren goritasunak kiskalduten eban, ta ezin bizi zatekian gauza ain zorijo- nekuak ikusi ezkerro, ta alan edegirik bere bularra, imiñi eban bere arimia Marijaren eskuetan, eta Aingeruen kanta eder ta soñu gozatsuen artian, bere semia lagun ebala, eruan eban zerura.

BIJARKO LORIA

Iñori biraorik entzuten deutzazunian, esan: bizi bedi Jesus: bizi bedi Marija: onelan lotsatu biraogilla dongia.

Sari esateko errege laburra.

Monstra te esse Matrem.

Erakutsi egizu zariala gure Ama.



OGETAZAZPIGARREN EGUNA

Jesusek gaztia zanian emon euskuzan onbide ta ejenpluen gomutia.

Jesusek bere gazte denporan egin zituzan, Marija ta Joseran esanak. Jaungoikua gizon ta emakume baten mende ta agindupian! Eta zetan? Lan. ta egikizunik beeratuenetan: zurak zerreetan, etxia garbitzen, ta onelakuetan: zurak zerreetan, etxia garbitzen, ta onelakuetan, euki eijeen arotz baten semetzat. Eta, zelan egiten zituzan euren borondate, agindu ta esanak? Arin, pozik, eta gogotik. Oh, eta zelan kondenetan daben Jesusen obentasun eta obediencia onek, gure desobediencia ta mukertasuna.

Jesusek bere gazte denporan beti jardun oi eban edo biarrian, edo erreguetan. Etorri al ete ekijon kalterik, alperrik egonagaz? Beukan arriskurik, esetsi edo tentaziñoeren baten jausteko? Ez. Baña erakutsi gura izan eutseen gazte argalai, zer egin biar dabeen esetsijak goituteko. O zelan kondenetan daben Jesusen lanak, gure alperrerija!

Jesus edadian aurreratuaz joian legez, alan joian azijaz ontasan, ta arimako ondasunetan, ez bakarrik Jaungoikuaren aurrian, baita gizoneen aurrian bere; erakusteko guk bere gauza onetan azijaz jua biar dogula; eta emon lagun progimuari azaletik eta kanpotik, geruago ta onbide edo ejenplu geijago. Baña begira, lenago agertuten dala Santu Jaungoikuaren aurrian, gizoneen aurrian baño, guk bere geure lelengo arduria imiñi daigun, Jaungoikuaren borondatia egitian. Ze agiraka bizi ta gogorra dan Jesusen bizieria, nire bizierarentzat! Zelan kondenetan dituzan nire ontasan laburra, nire egitada dongaak, nire bildurrak, mundutarren esamesak gaitik!

EJENPLUA

Dominika Paridisuko, Santo Domingoren Ertlijioeko Monja, zan gaztetxutatik guzti otzan ta esanekua, Jesusen jarraitzalla egijazkua izatearren, ta onegaitik artu zituzan Marijagandik mesede andijak. Irakurten da bere bizitzan oraindik urte gitxi eukazanian agertu jakola Aingeruen Erregiña, ta emon eutsazala erakutsi oneek. Izan zaite esaneko edo obediencia zeure Amarentzat, (Aita ill jakon orduko) ekarri egijeezu lotsia etxeko guztijai, ta izan zakijeez humilla: bizi zaite guztijakaz bakian, ta ez emon

inoz biderik errenkura ta ezdabaideetarako: lenago imini txingar gori bat miñaren gañian, guzurrik esan baño: izan zaitez ixill ta berba gitxikua: euki egizuz zabaldurik begijak zeruko guzatarako, ta zarraturik lurrekue-tarako: ez ekijozu inori ukuturik egin, ez ta zeuk zeure buruari, ez bestek zeuri: ez zaitez egon zeure gorputzari begira: iges egizu edozein-bere pekaturen keritzatik: eta inoz utsik egin ez daizun, itundu beti Jaungoikuagaz. Neskaitillatuak artu zituzan erakutsi oneek, ta asi zan zuzen gor-detan: aññagiña ze, garbitutera joianian, estalduten eban eskumia zapi bategaz, ta alan garbituten eban arpegija ta beste eskua, inoz itxi baga bere aizta nagusijago bati burua garbituten, arik eta bein estu artu ebeen baten jua zan artian Marijagaz itundutera, zeñek esan eutsan, ez egijala begiratu alako umekerijetan, ta ez egijala imiñi aiztiari atzerapenik premiñako gauzeetan, ez ebal berak gura izan allagiña lotu, emon eutsazan erakutsi-jakaz. Alan jarraitu eban aurreruntzian. Andik puska batera bere Ama Constancia eritxonak emon eutsan geija soñeko bart egiteko. Geratu zan zeregin ez ekijala; zerren batetik gomutetan zan Marijaren erakutsijagaz, Amaren esana egiteko, ta bestetik ez ekijan ez josi, ez ebaten. Estutasun onetan zuzendu zan Jaungoikuaren Amagana: beriala agerturik, erakutsi eutsan zelan egingo eban soñekua. Adi adi egonik esan eutsan neskaitilla-tuak: Amdria, berorrek asiten ezpadau, ez dot nik inoz ikasiko. Orduan Ama guztiz bigunak, zeñegaitik daguan eskriburik, zintzo ta toles bagaa-kaz daukazala bere artuemonak. eldu eutseen artazijai, ebagi eban soñe-kua, adjuntu ta prestau arija ta jostorratza, ta asi zan josten. Geijagoko baga neskaitillatu onek baxeritar ezer ez egijan bat bazan bere, ain ederto ikasi eban jostun edo josla bati jaokan guztija ze, ez eguan bera lakorik. Eta zalako ain txikija, ez eukan indarrik artazijak erabilteko biar dan legez; baña Marijak bedeinkaturik eskuak, esan eutsan : Orain egizu esan deusudan guztija; ta onenbestegaz eztali jakon. Nor zurtuko ez da jazo-era onegaz? Nok alabatu ta goratuko ez dau Ama gozo onen maitegarri-tasuna? Ta nok ezagutuko ez dau, jarri bajakon Dominikari Ama ordeko egiñik, izan zala menpetasan edo obediencia saritzat?

BIJARKO LORIA

Ez zaitez inoz alperrik egon, eta beste lanik ez daukazunian, irakurri liburu onak, batez bere Marijaren anditasun, ta guri egin deuskuzan mesediak adierozoten dituezanak.



Sarri esateko erregu laburra.

Virgo potens, ora pro nobis.

Donzella altsua, erregutu egizu gugaitik.

OGETAZORTZIGARREN EGUNA

Jesukeristo gure Jaunak basamortuan emon euskuzan irakatzioneen ganian.

Jesusek basamortura alde egin, eta an bizijagaz, erakusten deusku, izan gaitiala bakartade zaliak. Jaunak ez eukan inun, zeren bildur izan; ez lagun dongeen irakatziz txarririk, ez munduko gauzetara eraspén larregirik, ez... eta alanbere iges egiten dau eureen artetik, ta dua eremura. Eta; ni izanik lurrezko ontzi ain auskorra, izanik asko niri jausi eragiteko, norbaiten begirakune bakar bat, nabil ardura бага munduko lagun gaizto ta baralleen artian? Eta euko gura ditut eurakaz beti ta aspertu бага neure artu emon, ta zer-ikusijak?

Jesusek baru gogorraz erakusten deust basamortuan, neure aragijaren griña dongaak ezi ta bezau biar ditudazala. Zein beste gauzatarako igaroko zituzan Jaunak berrogei egun eureen gabakaz ongo kopau bat jan bagarik, ur tanta bat edan bagarik. luur gogorraren ganian lo egiten ebal; eta bizi abere ta pistijeen artian, egonik bere aragija arimiaren agindupe oso osuan, eta izanik berez pekatuak ezin egin eukiana? Baña, ay! Ze desbardintasuna Jesus ta nire artian daguana! Jesus garbitasun utsa, ta ni pekatuan sortua, pekatuan jaijua, pekatu obendu ta makurtua, ta biar bada orain-bere pekatuagaz ezaindua! Berak egiten ditu berrogei egunian baru ain gogorraz, eta nik ozta ozta eta nekez egiten ditut Eleixa Santiak aginduten deustazanak, edo billatuten ditut asmo ta atxakijak ausi edo gitxijenez arinduteko.

Jesusek basamortuan aspertu бага egiten dituzan errezu, erregu ta orazinoietan, erakusten deust, zelako ardura ta gogo bizijagaz esetsi ta jarraitu biar deustadau nik lan santu ta premiñazko oni. Baña, zeren biarra eukan salbagilliak? Ez grazijarena, zerren ezin eukian galdu; ez arimako ondasunena, zerren eguan guzti jakaz aberastuta; ez jakiturijarena, zerren zan jakiturija bera ta Aitaren argitasuna. Ni, ni naz oneen premiña andija daukana. Eta alanbere ay au penia! nire erregu ta errezuak dira laburrak, epelak, otzak, noraezian ta naitaez legez egiñak; albuetara begira ta neure gogua edozein gauzatan dodala.



EJENPLUA

Gutziz asko nai dau Marijak, bere izenian erregu edo oraziñoia egin daizula, baña oraindik geijago gorputza nekatutia. Cerdeñan bizi zan amabi urteko neskatillatxu bat, zeñen ama izanik Marijaren serbitzari egijazkua, esaten eutsan alabari, errezaue egijala egunoro errosarijua, ta baru egijala zapatuetan. (Auriem. t. 1. p. 201.) Errezetan eban errosarijua, baña ez eban barurik egiten. Bere Amak estututen eban, sarri esanagaz, ez zala neke andija astian baru bat egitia: baña alabiak ez eban gura, ezin ebalako atxakijagaz: bere eziña barriz ez zan besterik, ez guria baño, geijenian oi dan legez. Gau baten lotan eguala entzun eban norbaitek deituten eutsala bere izenagaz: iratzartu zan, eta ikusi eban Marija, zeñek esan eutsan: *Baru egizu zapatuetan Amak dirantsun legez; eta egiten badozu, nik lagunduko deutsut zeure premiña guztijetan.* Entzunik berba oneek jagi zan oetik, eta igaro eban enparetan jakon gau guztija gogo ta asmo santuetan; asi eban barua, eta gero ezagutu zan ez zala izan ames ta burutaziñoia bere ikuskizuna, ezpada ziur ta egijazkua; bada oitura santu oni jarraitu eutsan ogeta amar urtian, bati izan eban Marijaren laguntasuna bere premiña ta estutasun mueta guztijetan.

BIJARKO LORIA

Izan zaite bakartade zalia, ta ixilla, ta alde egin pekatuko bide, lagun , leku, ta etxeetatik...

Sarritan esateko erregu laburra.

Pone, Domina, custodiam ori meo.

Imiñi egijozu, Andria, nire auari gordetzallia.

OGETA BEDERATZIGARREN EGUNA

Jesus kurutzian josijaren gañian.

Vide bonitatem Dei. Begira, ta aitu egizu ondo Kristiñaua, Jesu kurutzian josijan, Jaingoikuaren ontasuna. Aitak emoten dau erijotzarako bere seme bakar ta laztana, ta semiak emoten dau bere bizitzia zu salbetiagaitik. Asko zan zu salbetako bere odolaren tanta bat; baña nai dau bere ontasanak guztija isuri ta bota, eta guztija isuti ta botaten dau, igaroten dituzala onezaz gañera presondegijak, lokarriak, belarrondokuak, txistuka, azotiak, arantzak, ultziak, lotsariak, biazatun ta ardao-garratza. Ez da inoz izan amodijuan bera bardindu leikianik, eta orregaitik ez da inoz izan bera bardindu dabenik bere adiskidiak gaitik penaa, lotsariak, ta ezikusijak igarotian.

Vide severitatem Dei. Begira, Kristiñaua, Jesus Kurutzian josijan, Jaungoikuaren aserre ta gogortasunari, Zergaitik Jaungoikuaren semia ilten da lotsariz beterik? Munduko pekatuak gaitik. Baña ezpadira bere pekatuak? Ez da ardura; berak artu ditu bere gañian, ta alan pagau biara dau eureen zorra. Baña, bera baldin bada guztiz garbi, errubagako, ta santutasuna bera? Ez da orregaitik bere ardura; inorenen zorkidi ta errudu jarri da, eta ori da asko, kurutzian josija izateko. Baña, Aita Zerukuaren seme bakarra ta maitia bada? Ez da alanbere ardura, artu dau pekatarijaren itxura ta ezaugarrija? Bada izango da ultzez josija lapur biren erdijan: bere Aitak itxiko dau, eta illgo da gizonik dongeenaren gisan. Oh pekatu ikaragarrija! Oh santutasun neurribagiaren erallia! Oh pistija amorratua!

Vide bonitatem, et severitatem Dei. Ikasi egizuz emendik, kristiñaua zeure onerako egija bi, guztiz premiñazkuak. Lelengua, ezagutu zeure salbaziñoiaren balijo andija. Gura ta gura ez izan biar dau zure salbaziñoiak balijo guztiz andikua; bada beragaitik eldu zan Jaungoikuaren semia kurtza baten illtera. Bigarrena, bildur andi bat galdu ez zaitetzan betiko. Ay, zure errukarrija kondenetan bazara! Zerren, baldin Jaungoikuaren aserriak ain gogortasun andijagaz kastigau badau Jesus errubagia besteren pekatuak gaitik, zer egongo dau zugaz infernuan, kastigetako zeure zeuriak, izanik ainbeste, ain andijak, ta ezaguera osuaz egiñak? Oh neure Jaungoikua! Zeure odolaren irabazi amaibagaak gaitik eskatuten deutsut humiltasunik andijenagaz, arren parkatu daidazuzala neure pekatu guzti-



jak! Oh Jesus ona! Zeure neke ta erijotzia gaitik, salbau nagizu, eta bizi nazan arte guztijaz errukiz begiratu egidazu.

EJENPLUA

Gizon donga, eralla, ta pekatari andi bat ekarri nairik bere emazte onak Zeruko bidera, esan eutsan, beste laztasunik egin gura ez eban ezkerro, edolabere baru egijala zapatuetan, eta errezaue Abe Marija bat ikusten zituzan Marijaren irudi guztijai. Asi zan oneek egiten, ez gogotik ta borondatez, ezpada, emaztiari ez naibagerik alde onetatik emotia gaitik, eta alanbere emendik etorri jakon bere zorijontasuna. Beinbaten bero andi bategaz etxeruntz etorrela, sartu zan Eleixa baten, kerizpian puska baten egotia gaitik; eta onetan eguala ikusirik Marijaren irudi bat bere seme Jesus besaartian ebala, asi zan oi eban Abe Marija errezetan gogo ta ganora baga. Urtetera joiala Eleisatik bere bidiari jarraituteko goguagaz, ikusi eban, zelan eguan Marijak besaartian eukan umia, zauri eginbarriz beterik, eta gorputz guztija odoldurik. Ikuskizun onegaz mirariturik, itandu eutsan Marijari: *Andria, nok orrelan zauritu dau zure semia? Zuk, erantzun eutsan Marijak, zuk zeure pekatu ta gaiztakerijakaz zauritu dozu nire ta Jaungoikuaren semia.* Berba oneek entzaunagaz batera, samurturik guztija, emon eutsan negarrari, ta zizpuru andijakaz asi zan erregututen pekatarijeen bitartekuari, alkantzau egijola arren bere gaiztakerijen parkaziñoia. Alan egin eban Marijak, baña Jesusen albora begiraturik adierazoten eban, ez zituzala entzun gura Marijaren erreguak. Baña barriro ta barriro erreгутuten eutsan Ama errukiorrak, arik eta (zer ukatu daikijo bere erraijetan bizi zanak?) azkenik bigundurik Jesus, emon eutsan artian eskatuten eutsana. Orduan esan eutsan Marijak pekatari damutuari: *Erdu, ta mun egi-jezu nire seme maitiaren zaurijai.* Guztija ikaraturik, negarrezko iturri bi bere begijak egiñik, juan zan eurak gana, mun egin eutseen, begitanduten jakola, au egiñaz batera sikatuten zirala, adierazoko baleu legez, bere pekatuen emodijozko damua gaitik, parkaturik geratuten zala. Onenbestegaz urten eban Eleixatik, baita mundutik bere, bada bere ta emaztia alkarren bai ta borondatiagaz, sartu ziran Erljiñoian.

BIJARKO LORIA

Esan sarritan egunoro: *Jesus dago kurutzian josirik, eta ni atsegiñetan?*
Sarri esateko erregu laburra.

Sancta Mater istud agas: crucifixi fige plagas: cordi meo valid.

Ama Santia egizu au: inkau egizuz sendo nire bijotzian Jesus kurtzian josijaren zaurijak.



OGETA AMAR GARREN EGUNA

Marija penaz beterik kurutziazen oñian aurkituten zaneke gomutia.

Iru ezpata guztiz zorrotzek, besteen artian, igaroten ebeen baterik bestera Marija penaz betiaren bijotz samurra, kurutziazen oñian eguanian.

Lelengua: galdutia seme bat munduan izan diran guztijen artian edereña, maitegarriena ta onena: ikustia ultzaz josita lapur biren erdijan odolusturik, ta illik bere edadiaren lorán: eta alde batera gogoratutia zuk pekatari esker txarreko orrek ez zenduala gurako osagarri ain karu ta nekez irabazija; ezpada gurako zenduala betiko galdu, Jaungoikuaren odolaren bitartez ta laguntasunaz, ta zeure alegiñakaz salbau baño. Au zan, esan bere ezin deitekian pena bat, igaroten ebana baterik bestera Ama donzella naibagez betiaren arimia, esan eragiten eutsana atsakabiaren indarrez guztija samindurik. *¿Quae utilitas? ¿Quae utilitas?* Ay, alperrikakua izango dala pekatari zorigaiztokuarentzat nire seme guztiz maitiaren odola!

Bigarrena: ikustia ez bakarrik isuri ta botaten zala odol au alperrik kristiñau askorentzat, baita bere berau, euren erruz, izango zala bigarren infernua. Ze pena andi, portitz, ta gogorra au Ama ain errukior batentzat! Ikustia mundua salbetako emon zan odola bera, izango zala salatzallia, ta emongo eutsena betiko galdumendiko epai zorigaiztokua, ezin kontau al pekatari, azkenik bere semiak diranai! Galdu bere Jesus guztiz maitegarrija, zuretzat alperrik! Eta ikusi au berau gaitik Jesus geijago ta penetan zala. Oh Marija samintasunez inguratua! Nok gozatuko zaitu?

Irugarrena: nekez bada bere igaroalak izan baziran bere kristiñauen esker txarra, eta Jesusek eurak pekatutik aterateko igaro zituzan nekiai egiten eutseen jaramonik eza, zer esango dogu emoten eutsan penia gaitik, gogoratutiak, oneek eurok izango zirala askoren gatx eta kaltian? Nok adierazo daike, noraiño eldu zan emen bere peniaren anditasuna? Zerren baldin Jesukristo ill ezpalitza, ez ziran egijaz izango ein andijak zure pekatu ta gaiztakerijaak, baño pekatu egin orain bere odolagaz parkaziñoia jaristeko itxaropen eruagaz, jarraitu pekatuai erijotzaraño uste bete one-gaz baita bere egonik batzuk, oni gitxi eretxirik Jesusen odolari berari birao, arao, ta ahenak ezarten deutsezanak, badago bijotzik au igaro leijanik? Zein arrigarri ta mingotxa zan pena au Marijaren bijotza ain samur

ta maitetzallientzat! Eta zein bijotz gogorrekuak garian, baldin bere pena ta naibagiak bigundu ta negar eragiten ezpadeuskue.

EJENPLUA

Santa Brigidaren denporan bizi zan gizon aberats bat pekatu eta gaiztakerijetan ondaturik. (Auriem. t. 1. p. 182.) Artu eban azkenengo gatxak, eta alanbere ez eban artuten gogo ez neurririk, erijotzarako pres-tetako. Jakin eban Santa Brigidak, eta beriala asi zan Jaungoikuari eskatu-tuten gogorik bizijenagaz, bigundu egijala pekatari gogortu aren bijotza, eta ondu egijala. Ainbeste bidar, ta ain gogor jo zituzan Jaungoikuaren erru-kijaren atiak eze, azkenik erantzun eutsan Jaungoikuak, zirautsala, bialdu egijala sazerdote bat geixo pekatari andi ari adierazotera guztiz on, ta arima zale bat; baño bere alegiñak guztijak alperrak izan ziran: juan zan laugarrenian, ta orduan, Jaungoikuaren grazijaren ugaritasunak, eta Mari-jaren bitartekotasunak samurtu ta guztiz aldaru eutseen bijotza, ain moduten ze, esan eban geixuak: *Irurogeita amar urte dira konfesau ez nazala, denpora guzti onetan izan naz Demonioaren adiskeide andija, izan natxako leijal ta esanekua, ta alkarregaz euki ditugu geure artu emon ugarijak: baño alanbere orain guztijan nago osoro aldaturik, konfesau gura dot, eta uste dot Jaungoikuak parka-tuko deustala.* Oneek esanik konfesau zan lau bidar egun atan beratan, damu senduagaz, ta negar ugarijakaz: urrengo egunian artu eban gure Jauna, eta andik sei egun barru ill zan guztiz ondo prestatuak. Ill zaneke agertu jakon Jauna Santa Brigidari, eta esan eutsan, pekatari onen arimia juan zala Purgarorijora, eta laster sartuko zala zeruan. Guztiz asko mira-ritu zan santia, gizon ain donga bat grazijan illtiagaz; baño Jaunak adiera-zo eutsan zergaitik zan au: jakin egizu, ene alabia, nire amaren deboziñuak zarratu deutzazala infernuko atiak: zerren, egija bada bere, ez eutsala iñoz deboziño egijazkorik euki, gomutetan zan kurutziazen oñian igaro zituzan pena ta doloriakaz, eta orduan samurtu ta errukituten zan: orregaritik nire Amak jaritxi deutsa grazija ta denporia ondo prestatuak sakramentu san-tuak artu, ta salbetako.



BIJARKO LORIA

Marijaren pena ta doloreen gomutan, eskini bijarko neke, pena, lan, ta naibage guztijak.

Sarri esateko erregu laburra.

Fac, ut tecum lugeam.

Egizu, zugaz negar egiñ dagidala.

OGETA AMAIKA GARREN EGUNA

Jesusi zor deutzagun amodijuaren ganian.

Gura leuke zure bijotzak norbait maitetu? Ondo dago, maitetu egizu; baña maitetu egizu, zeure amodijua geijen zor deutzazuna, zein dan Jesukristo. Begira gizona bada bere, dala gizonik ederrena, ta galantena. *Speciosus forma proe filiis hominum.* Eta gizon ez gañetik, da Jaungoikua bere, ta beraugaitik edertasun amaibagia. Geure gogua eruan oi deusku gauza eder batek, jantzi on batek, Jauregi batek, abere batek... eta, ez deusku eruango, Jesus, alde guztijetatik ain maitegarrijak? Nun da gure zentzuna?

Ez dogu ametan Jesus, ta alanbere Jesusek ametan gaitu. Ainbeste maite gaitu, ze, bere sorrera ta jaijotzatik ona ez dau beste gauzarik goguan erabili, gu maitetutia, eta guri mesediak egitia baño. Zugaitik ume biurtuta egon zan kuman, jardun eban arotzojan, nekatu zan bere lege santuaren ezauera ta barrijak emoten. Zugaitik artu zituzan belarrondo-kuak, lotsarriak, azotiak, izan zan txistuz, zambroz ta zauriz betia; zugaitik ill zan kurutze baten, eta zugaitik bota eta isuri eban bere zanetako odola. Oraindik gitxi deritxazu?

Beinik-bein berari ez jakon asko eretxi; bada amodijo oni geijago iraatzi gura izan eutsan, itxirik bere gorputza janaritzat, eta bere odola edaritzat Altarako mai Santuan. Gizon bijotz bagako ta eskertzarrekua: maite dozu pozkerriak egiten deutzuzan txakurtxu bat, edo ume eder bat, eta neurribagako amodijua deutzun Jesusi ez deutzazu erantzungo maitetasunagaz?

Deritxazu azartasun larregi dala Jesusi esatia: *Jauna maite zaitudaz?* Esan egijozu, esan egijozu ardura bage, ta uste osuagaz; bada orixe berori da berak gura leukiana. Esan egijozu, eta pekatarija bazara bere, ez dozu orregaitik atzeratu biar. Bera da, lelengo bidera urtenik artuten zaituzana, laztanduten zaitu, edegiten deutzu bere bularra, erakusten deutzu bere bijotza, eta dirautsu samurtasunik andijenagaz, maitetu daizula. Edo izan-go zara arrizkua, edo ezin jarki zinaikijoz dei ain amodijoz betiari.



EJENPLUA

Dominika Paradisuko len bere aitatu danak (Auriem. t. 2. p. 323.) zapatu baten egin zituzan lorazko aro edo koroe bi, eta erakutsi eutsezan Jesus ta Marijaren irudijai, erregututen eutseela biziro usain egijuela: baña ikusirik ez ebalá jaritxiten mesede au, uste eban zala, ez ebalako oraindik emon, oi eban limosna bat, eta urten eban balkoera, eskeko bati deitu, ta emoteko ustiagaz. Lelengo ikusi ebana zan, Andra bat ume bat eskutik ebala, zeñek eskian bebillan bere, erakusten eban lotsa modu on, ta jasotasuna; beriala altzau zituzan eskuak umiai eskabidia egiten eutsala, ta bardin egin eban Amak. Ikusi eban Dominikak, umiak eskuetan zaurijak eukazala, ta errukiturik esan eutseen: Itxaron egidazue puska baten. Bajoian ditua emotera, baña itxirik eguan ataiko atera eldu baño lenago, aurkitu zituzan barruan eskekuak: eta mirariturik itanduten deutsee: Nok idigi dau atia? Ay nire errukarrija Amak ikusten badau! Ixi, ene alabia, erantzun eban Andriak, bada ez gaitu iñok ikusi. Esan eutsan Dominikak: *Zelan ibilli leite zure semia, onetan daukazan zauri orreak? Amodijua eragin eutsazan*, erantzun eban Andriak. Umiaren abegi samur, edertasun ta modu onak, euken Dominika konort baga legez; ta itandu eutsan: Ez deusue miñik emoten zaurijak? Eta umiak irribarre egiñik erantzun eutsan: Zer? Eta jarri zan onegaz batera Jesus ta Marijaren irudijak buruan eukezkan lorazko aro edo koroiai begira, eskatuten eutsazala Amari, esku ta begijakaz egiñik siñuak. Artu zituzan Amak, eta emon eutsazan semiari usain egin eijuen. Zergaitik, esan eutsan Dominikari, iminten deutsezuz lorazko koroe orek Jesus ta Marijaren irudi onei? —Eurái deutseedan amodijua gaitik. —Zenbat maite dituzu? —Al dodan beste. —Zenbat al dozu? —Eurak lagunduten deusteen beste. —Bada jarraitu egijozu orrellan maitetutari, zerren Jaungoikuak emongo deus sarija beste munduan. Ez zan aspertuten Dominika begiratutiaz bein batari bein bestiari. Zeri begiratuten deusazu? Esan eutsan Andriak. —Zure semiari; erantzun eutsan, eta irreraturik zerbait geijago asmau ta sentiu eban zelako usain gozua botaten ebeen umiaren zaurijak. Orduan esan eban: Andria, ze ugentugaz igortziten deutsezu zauri onei, alako usain gozua botateko? —Karidadekuagaz.—Nun saltzen da? —Aurkituten da fediaz egitada onakaz. Onetan artu eban Dominikak zapi bat garbituteko umiak bularrian eukan beste zauri bat, zeñek botaten eban oraindik usai gozua; baña Amak ez eutsan itxi, ta umia zerbait atzeratu zan. Erdu umia, erdu, esan eutsan Dominikak, emongo deusut ogija. Erantzun eutsan

Amak: bere janarija amodijua da: bere gogoko ta laztan izan gura badozu, asko maitetu egizu. Berba oneek entzunik asi zan umia poz ta atsegin geijago erakusten, eta Dominikagaz berbetan. Asko maite dozu Jesus? —Ainbeste maite dot eze, ez gabaz ez egunaz ez darabilt beste gauzarik goguan bera baño, ta ez dot beste gauzarik gura, bere borondate santua egitia baño. Bitartian barriz, beti joian geituz, zaurijak botaten ebeen usaña, ain modutan ze, gozaturik Dominika esan eban: Ume baten zaurijak ain usain gozua badauke, zelakua izango ete da zeruko usaña? —Ez zaite miraritu, erantsun eutsan Andriak, bada Jaungoikua daguan lekuan, an dago ugentu ta usaiñik gozatsuenen jatorrija. Berba oneek amaitu orduko, aldatu zan ikuskizun guztija: umiaren arpegija argitu zan eguzki bat legez: eta Ama agertu zan jantzirik ederrenakaz apaindurik. Artu zituzan Jesusek lorrak Amaren altzotik, eta bota zituzan Dominikaren gañera, ziratsala: Artu egizuz lora oneek, gero zeruan amongo deusudazanen bai, ezaugarri, ta prenda ziurra legez. Au esanagaz, aldendu ziran, eurakaz eruela Dominika dontsuaren bijotz guztija.

BIJARKO LORIA

Errezau iru Aita guria ta Abe Marija, Jesus ta Marijaren bijotz gozuak gaitik: edo egin beste gauza onen batzuk.

Sari esateko erregu laburra.

Fac ut ardeat cor meum, in amando Christum Deum.

Egizu ixiorik egon dedilla nire bijotza, Cristo Jaungoikuaren amodijuan.



BAGILLAREN LELENGO EGUNA ZEÑETAN

Eskiñiko jakon bijotza Marija Ama Donzella garbijari

Egun au igaroten da osoro Marijaren bijotza gozuaren izen ta onraan, eskintzen deutsalagula geure bijotza, baita bere alde-batera Maijatzeko ill guztiko lan onak. Eta abegi obiaguagaz begiratu deijon Marijak, konfesau ta komulgauko zara, alegiñaz, al bait onduen prestanta. Eta eskerak emon ezkeru, egin biar dituzu bost gauza oneek.

Lelengua. Eskiñi barriru ta alde-batera Marijaren bijotz guztiz maitagarri ta gozuaru Maijatzeko illeko lan ta gauza on guztijak.

Bigarrena. Adorau ta alabau egun atan sarritan Marijaren bijotz Jaungoikuaren ta zeruko zorijonekuen ain gogoko ta laztana, zeñetan daukezan imiñirik euren atsegin ta gozotasunak: bijotz bat, Jesusenaren antz ta irudirik geijen daukana: bijotz, grazijaz betia, zeñen bitartez jatorkuzan onera ta mesede guztijak.

Irugarrena. Batu geure bijotza santu guztijenakaz, batez bere, mundu onetan Marijarena geijen maitetu ebenenakaz, eureen onera ta birtute ugarijakaz estaldu eta tapau deitian guriaren billostasuna.

Laugarrena. Erregutu bizi, ontzat artu dagijala gure bijotzaren eskintsarija, eta amaitu dagizala bere mesediak, alkantzaurik gero beti zeruan bera alabetia.

Bostgarrena. Egin egun onetan geure erregu ta lan onak, bestetan baño gogo obiagaz ta ardura geijagogaz: jua beragaz egotera bere irudiren baten aurrian: emon zerbait eskekoren bati, berba baten, igaro egun au al bait onduen, Jesus ta Marija gure bijotzetan beti bizi ditezen gurarijakaz.

MARIJARI GEURE BIJOTZAREN ESKINT-SARIJA

O Donzella guztiz garbi, Jaungoikuaren Ama ta neure bitarteko altsua! Auzpazturik zure oñetan, Jaungoikuaren eta zerutar guztijen aurrian, opa ta eskintzen deutsal, pekataririk dongena banaz bere, neure bijotza bere asmo ta gurari guztijakaz. Eta nai deutsal emon beti betiko, dalako zeuria ta zeure seme Jesusena. Ama guztiz biguna! Ontzat artu egizu, bijotz bijotzetik egiten deutsal opaari au, santu guztijak egiten deutsalagaz batera, eta alkantzau egidazu grazija, biziteko emendik aurrera bakar bakarrik zuretat, eta zure seme maitiarentzat. Alan itxaroten dot, bere laguntasun sendo, eta zure bitartekotasun anditik, eta eskintzen deutsal, egitia onetarako neugan dana, gogo ta borondare osuagaz. O Jesus eta Marija! Ixiotu egizue nire bijotza zeubenen su gorijan, bizirik emen lurrian errerik karidadiaren garrakaz, egon nadin kizkaldurik zure amodijuan, Aingeru ta santuak lagun ditudazala, betiko atseginetan zeruan.

ALAN IZAN DEDILLA



MAIJATZEKO ILLEKO KANTAAK

KANTA-AURRIA

Guzti guztijok alkar arturik
Gure bijotzak loraz beterik
Opa deutsuguz Marija
Zeruko izar argija.

Lora guztijen lora
Grazijen grazija
Zu zara Ama maite
Donzella garbija.

Ill au bada izanik
Loratsu argija
Zuri opa deutsugu
Osorik guztija.

Al dogun on guztija
Zure izenina
Egingo dogu alan
Ill oso guztijan.

Artu egizuz ontzat
Gure eskinijak
Laburrak izan arren
Eurenez guztijak.

Ez bada guztijok
Azkortu gaitian
Bijotzak auzpazturik
Amaren aurrian.

Adanen seme alabok
Erbeste onetan
Belauniko gaukazuz
Gaur zeure oñetan.

Gure premiñen barri
Zuk ondo dakizu
Guzti guztietara
Begira egizu.

Zugan iminten dogu
Geure poz guztija
Izanik zu grazijen
Iturri ugarija.

Batzuk batetik eta
Bestiak bestetik
Laban arriz beterik
Alde askotatik.

Zelan guk ez billatu
Zu Ama maitia
Izanik izar argi
Zeruko atia?

Zure eskubidiak
Semiak emonik
Zeruan bertan bere
Ez dauke bardiñik.

Jaungoikuaz ostian
Altsuena zara:
Bada zuri itxirik,
Begiratu nora?

Pekatari maitiak,
Ama bera dogu,
Gura dogun guztia
Beragan daukagu.

Jesus begira dauka
Zer deusnan eskatzen
Biotza idigirik
Grazijaak eskintzen.



Bera barriz guganuntz
Errukiz beterik
Aldendu бага ños
Gogo ta begirik.

Zer gura izan geinke
Onezaz ostian?
Deijez jaoku bera
Ill oso guztijan.

Orain ugariturik
Bere merediak
Erraztu gura deuskuz
Zeruko bidiak.

Bai: maijatz ill dontsu au
Beretzat auturik
Bere eguak daukaz
Guztiz zabaldurik.

Azkortu bada azkortu
Nagitu bagarik
Ez arren ñok galdu
Era ain ederrik.

Erregutu biziro
Damutu sendaro
Pekatuen negarrak
Bota egunoro.

Asmo santu ta onak
Artu aurrerako
Biziera on baten
Alan irauteko.

BESTE BATZUK

KANTA-AURRIA

O Ama eder
Eta laztana
Zure biarra daukagu
Ainbeste neke
Ainbeste arrisku
Ainbeste bildurren artian
Gorde gagizuz
Zeure menpian
Zerura eldu artian.

Izar eder ta garbi
Zeruko iturrija
Adanen semeentzat
Dontsu pozgarrija:
Au guk ezaguturik
Maijatz guztija
Autu dogu zuretzat
Asi, ta amaija.

Ama ederra dago
Zerutik begira
Seme gura dabena
Bertatik ingira:
Zer opa ete jakon
Gizonen aldetik,
Jesusi eskintzeko
Bere esku garbitik.

Alperrik Aingeruen
Izarrez jantzirik
Bere begi ederrak
Gugan iminirik
Seme erbestetuok
Bere bijotzian



Aztu ezinik gaukaz
Glorijen artian.

Seme Jesus galduta
Naibagez beterik
Erosi genduzana
Ez dauka damurik:
Zer dogu bada egingo
Bere izenian
Poztuko gaituzanik
Geure aldi guztijan?

Ama eder garbija
Ara gure asmua
Zuri eskiniteko
Maijatza osua,
Zeruak argi argi
Zelaijak bedarrez
Sasi mendijak loraz
Jaokuz diadarrez.

Ill guztijen artian
Ez dauka bardiñik
Txoritsuak ezagun
Abijak egiñik
Soñu kantuan dabiltz
Poza erakusten
Egunagaz batera
Gu irazartuten.

Beraz egoki dogu
Maijatzeko illa
Ez dogu zer ibilli
Beste baten billa:
Kendu nagitasunak
Bijotzak azkortu
Al dogun on guztija
Oraintxe billatu.

Ill osuaz gañetik
Egun bakotxian
Daigun gauza onen bat
Bere izenian:
Alan lora ederrak
Illen gueneko
Sortaturik Amari
Pozik eskintzeko.

Ondasunak ugari
Marija dituzuz
Esku utsakaz orain
Itxi ez gagizuz
Ukatutia zer dan
Iñoz ez dakizu
Pekatari guztijoi
Lagundu eiguzu.

Ziur itxaron daigun
Bere abegija
Izango dala bigun
Gozo ta argija:
Lagunduko deuskula
Bizitza onian
Beragaz izateko
Eternidadian.

Maijatzeko ill au da
Gutziz egokija
Jaristeko zerutik
Nai dogun guztija:
O ill zoriñoneko
Atsegingarrija!
Geure Ama onari
Gutziz eskinija.

Euskaldun prestu garbi
Ta bete leijalak
Emon geure Amari
Benetan eskerrak:



Orretarako ara
Emen zortzikuak
Geure antxinakuen
Mintzoerakuak.

Jaunak bakarrik daki
Nostik norakua
Bizkaijan izan aldan
Euskal zortzikua
Ez daigun inoz aztu
Berbetan gozua,
Geure Asabetatik
Etorritakua.

Asko zorigaiztuan
Gaurko egunetan
Burubak austen dabiltz
Pranzen erderetan
Euskeria azturik
Ay negargarrija!
Arroztu bedi arin
Alako egarrija.

O Ama guzti garbi
Zeruko Erregiña
Zuk izan biar dozu
Nire atsegiña!
Jaunak egin ninduan
Bere irudira
Baña lurrian nago
Zerura begira.

Ay zenbat arerijo
Erbeste onetan!
Ezin azartu neite
Guztiak kontetan
Begira an ta emen
Mundu bazterretan
Arriskubaz besterik
Ez dot aurkietan.

Griña gaiztuak beti
Okertu gurarik
Imiñi gura nabec
Arima loiturik
Munduba palaguka
Luzifer puztuten
Nundik galduko nabecen
Ez dira aspertuten.

Lagun ta ejenplu txarrak
Bazter guztietan
Nun nai aurkitzen ditut
Erbeste onetan
Burlia ta barria
Gaizki esatia
Alde guztietatik
Nire esestia.

Guztija goitu biar
Banaz zerurako
Nok nau sendatuteko
Ezpanaz galduko?
Neure argaltasunak
Emen nau bildurtzen
Zuri begiraturik
Danau naz poztuten.

Nai dabenak benetan
Amagaz gozatu
Arima garbijagaz
Degijola batu:
Espirituko poza
Bere bijotzian
Ziur aurkituko dau
Bai zorijonian.

Geure aldetik badago
Donzella Marija



Zer deusku jagi arren
Infernu guztija?
Bere egape gozuan
Jarri ezkerro gu
Luziferren bildurrik
Zer euki ez dogu.

Zure eskintsarijak
Dira betikuak
Bake, poa, ta atsegin
Amaibagakuak:
Alan gura dabenak
Beragana batu
Daike ardura baga
Bijotza gozatu.

Ama, iraatsi egizuz
Gure bijotzetan
Kantadu ditugunak
Zortziko oneetan
Bizi gaitian leijal
Bide santuetan
Lurrian eta gero
Zugaz zeruetan.

Artu daigun guztijok
Amatzat Marija
Zeruko Erregiña
Donzella garbija
Berak bide onetan
Deusku lagunduko
Leijal orain izanik
Gero zerurako.

* * *

V. Ora pro nobis Sancta Dei Genitrix.
R. Ut dgini efficiamur promissionibus Christi.

* * *

Defende, quoesumus, Domine, Beata Maria semper Virgine intercedente, istam ab omni adversitate familiam, et tolo corde tibi prostratam ab hostium propitius tuere clementer insidiis. Per Christum Dominum nostrum. Amen.

Nos cum prole pia, benedicat virgo Maria.
Amen.

AZKENA